


# PuLunPe

148. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA





# Sagar olerkia

Sagarraren azpian zen arra.

Sagarraren ondoan hostoa.

Sagarroi bat alboan.

Sagarrondo ugariz osatutako basoan.

Sagartzazu ene lagunarekin nindoan.

Sagardo botilak altzoan.

Sagarroi entzunaz belarri zuloan.

Apple etorri eta Zakar ontzira eginiko



## Bertsoak zozketa Mundialari



Eskerrak baden gure artean  
jendetza eskuzabala  
Pulunpe eta Esanerranen  
mesedetan dabiltzala  
milaka txartel erosi dira  
inguruan berehala  
hemen ikusten da elkarrekin  
dugun gogo ta ahala  
guztiei esker ospa daiteke  
hain zozketa mundiala!

Berueteko basoetako  
ezkurrarekin hazia  
Etxalekura joan da aurten  
gure txerri berezia  
txartelak zure izena zuen  
letra larriz idatzia  
pozten naiz Beñat sari eder hau  
duzula irabazia  
beti euskaraz ari baitzara  
duzu ongi merezia.

Naturak berez ematen die  
zuhaitzei bere itxura  
eguzki izpi beroen bila  
iritzi nahirik zerura  
adarra makil egin du Joxek  
ta makila eskultura  
esku artean hartuta zoaz  
joan nahi duzun lekura  
euskarri ona izanen duzu  
guretzat zaren modura.

Ehun saritik gora baziren  
denak gozo eta eder.  
pozik gelditu gara pitxintxaz (1)  
beteta hainbeste bazter.  
zuen ondoan jarraitzearren  
eginen dugu edozer.  
aurrerantzean seguru elkar  
ikusiko dugu laster  
mila zorion sarituentzat,

EGILEA: AITOR ARANGOA

(1) Pintxintxa, altxorra, mauka...esan nahi du eta hitz hori erabiltzen dugu saria ateratzen denean.

**PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO  
ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA**

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA.

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

**Emaila: pulunpe@gmail.com**

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

ARGAZKILARI GONBIDATUA: JosebaAndoni Andoño

Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Iosu Martinez Urdaci.

Tirada 1.600 ale.Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

2016ko URTARRILAREN 7AN INPRIMATUA.





# URTARRILEKO AGENDA

## ERAKUSKETA:

Brasilgo Amazonasen ateratako argazkiak: ohiturak, biztanleak, herriak, sendabelarrak... Sandra Iraizozek bertan ateratakoak eta bere liburua "en un segundo cambia tu vida" liburuen inspirazio izandakoak

urtarrilaren 7tik urtarrilaren 29ra

## URTARRILAREN 8a

Arraizko kobazuloen dokumentala.  
"EL otro mapa de Abauntz"

Nafarroako Abauntz kobazuloan Europako lehenengo maparen aurkikuntzaren berri izan ondoren, egilea gertuen dagoen herrira hurbildu eta, 25 irudi segundoko irudiekin, mapa berriaren bideak erakusteko. Beste mapa bat etorkizuneko.

## LIBURU AURKEZPENA

"En un segundo cambia tu vida"

Sandra Iraizoz Eltzaburutarrak "En un segundo cambia tu vida" liburua aurkeztuko digu. Bertan Amazonasen bizitako esperientziak, euskal herriarekin antzekotasunez eta bizitzak ematen dizkizun zartadei nola aurre egin ahal zaien

azalduko digu

## URTARRILAREN 22a

19:00 LARRAINTZAR HITZALDIA  
Lurzoruaren garrantzia nekazaritza ekologikoan

ARREA elkarteko Elenaren eskutik

Gure baratzeetako lurzoru bizirik dago, bizitza hori mantentzea edo handitzea guri dagokigu. Horretarako eman beharrek lehenengo pausoa lurzoruaren "biztanle"en garrantzia eta lurzoruaren karakteristikak ezagutzea da. Hortik abiatuta lurra nola maneiatu jakin eta ulertu ahal izango dugu.

## URTARRILAREN 29a

Larraitzar 18:30 PELIKULA

"DIXIE ETA MATXINADA ZONBIA"

7 urtetik gora

Dixieri eskolan lehendabizikoz gauzak ondo doazkionean bere aspaldiko lagun zonbiak, Isis eta Gonner, agertzen dira berri txarrekin: Nigreda gaiztoa hilkorren kontrako zonbien matxinada bat prestatzen ari da. Betidanik duen ametsa lortu nahi du, mundua konkistatzea. Azoth magikoaren eramaile bezala, Dixiek bakarrik gelditu dezake, baina zonbi eta hilkorren arteko borrokan, noren alde egingo du Dixiek?

BASANDEREOKEN LIBURUA, SALGAI



EUSKARAK  
365  
EGUN

erabizi



www.365egun.eus



GOBERNUAK EGIN DUEN NAFAR  
PRODUKTUEN BIDEOA IKUSI: AMETZA.EUS

SILBESTRE DEUNAKO LASTERKETAREN  
ZERREDA AMETZA.EUS WEBGUNEAN DUZU  
IKUSGAI!



IKUSI ARRARASKO SEGA TXAPELKETAREN BIDEOA AMETZA.EUS WEBGUNEAN



NTB TELEBISTA LARRAINTZARREN EGON ZEN.  
IKUSI GURE WEBGUNEAN!





# Berriz ere, aldaketa



Nafarroako foru eta udal hauteskundeek aldaketa suposatu zuten, ezkerrera eta abertzaletasunera. Oraingoan, ordea, abenduak 20ko Espainiako Hauteskunde Orokorretan, aldaketaren aldaketa gertatu da, abertzaletasuna nabarmen jaitsi baita, ezkerre zatitu eta eskuinak lehen postua hartu.

Nabarmen geratu da aldaketa hau gurean, UPN, Podemos eta Geroa Bai-k EH Bilduren lekua hartu baitute, udaletan dagoen zinegotzi osaketaren oso alderantzizko emaitzak utzita.



## ULTZAMA

Aldaketa nabaria gertatu da hemen. EH Bilduk dauka alkatez, baina laugarren geratu da hauteskunde hauetan. UPNk nagusitasuna lortu du Podemos, Geroa Bai eta EH Bilduren aurretik.

## Udal eta kontzejuetako hauteskundeak bigarren itzulia

Aurreko hilabeteko aldizkarian esan bezala, Lantz eta Anueko udaletan ez zen zerrendarik aurkeztu maiatzean, eta beste kontzeju askotan. Abenduaren 20an zeukaten alkateak aukeratzeko bigarren aukera, eta batzuetan zerrendak aurkeztu dituzten arren, beste batzuetan ez, Anueko udalean esaterako. Hona hemen emaitzak:



dira; Gorrontz-Olano eta Zenotzen ez dute zerrendarik aurkeztu.

Alkotzen Gaztainerdi zerrenda aurkeztu zuten, eta boto gehien jaso zituen Pedro Maria Oiarzun Baraibar izan zen. Pedro Roman eta Jose Maria Erbiti Garaikoetxea, Jesus Mari Orkin Balda eta Jose Zenotz Zia izan ziren hurrengoak.

Arraitz-Orkinen Pedro Mari Larraintzar Baraibar izan zen bozkatuena. Jesus Angel Martin Rodriguez, Joseba Ibarra Kasimiro, Jose Antonio Larraioz Arregi eta Errapel Kastor Txokarro taldekin batera.

Auzan Jose Ramon Berasain Berasain izan zen lehena. Taldekideak Iñaki Goñi Aldatz, Teresa Tornaria Lajos, Jesus Mari Goienaga Tornaria eta Makario Ziganda Tornaria izan ziren.

Eltzaburun Arkil taldea izan zen aurkeztu baka-rra, eta Laura Herranz Oiz izan zen bozkatuena. Lurdes Aranguren Barbe, Javier Herranz Oiz, Karlos Goia Etxeberria eta Isabel Mindegia Ilarregi hurrengoak.

Iraizotzen Maitane Arbilla izan zen taldekideetan bozkatuena. Iker Isasi Aleman, Miguel Gartzia Artza, Jose Luis Arangoa Goñi eta Ana Latasa Etxart izan ziren hurrengoak.

Urritzola-Galain, azkenik, Iñaki Ezkurra Osakar zerrenda buruak jaso zituen boto gehien. Maria Rosario Legarrea Errazkin, Pablo Marques Ferrer, Genaro Erasun Erasun eta Juan Jose Beuntza Urrutia izan ziren hurrengoak.

## ANUE:

Udalerako ez zen zerrendarik aurkeztu, eta hiru kontzejuetatik bitan ezta ere: Aritzun eta Olaguen. Bai, ordea Etulainen. Sergio Zalba Egozkue zen aurkeztu zen bakarra, "Larrainburua" zerrendarekin. 29tik 19 boto jaso zituen, eta boto zuri eta baliogabeko bana.

## BASABURUA:


Berueten eta Udabe-Beramendin zituzten hauteskundeak abenduaren 20an, baina Berueten ez zuten zerrendarik aurkeztu. Udabe-Beramendiko kontzejuan Erlain taldea aurkeztu zen. Boto gehien jaso zituen Imanol Biurarena Barrenetxea izan zen, 24rekin. Ondoren Frantziska Urritzza Satrustegi, Inma Fernandez Vicuña, Pilar Mayora Gorrotxate eta Simona Tirapu Garraida.

## IMOTZ:

Goldaratz zen alkaterik gabe geratzen zen kontzeju bakarra. Joseba Ollo Iturralde izan zen aurrerantzean. Bera bakarrik aurkeztu zen, Elkartuz zerrendan, eta 29tik 10 boto jaso zituen.


## ULTZAMA:

Zortzi kontzeju ziren maiatzaren 24an aurkeztu gabeak. Oraingoan, zortzi horietatik sei aurkeztu




## ANUE

Alde txikia izan da lehengo lauen artean. Normaltasunari eutsi dio, aurreko urteetan antzeko emaitza izan baitzen, Podemosen berritasuna kenduta,




## BASABURUA

EH Bilduk nagusitasuna mantentzen du, eta nafar hauteskundeetako emaitzak mantentzen dira gutxi gorabehera. Gainontzekoek nabarmen gutxiago lortu dute.




## ODIETA

EH Bildu garaile den hirugarren udala da Odieta. Alde txikiagoarekin, baina normaltasunari eutsiz. Harritzekoa da UPNren boto galera, eta Podemosen indar handia.




## ATETZ

Udal hauteskundeetan EH Bildu izan zen garaile, eta bigarren geratu da oraingoan. Maiatzean jasotako botoak beste alderdien artean banatu dira,



## IMOTZ

EH Bildu garaile hemen ere, foru hauteskundeetan bezala. Podemos, Geroa Bai eta UPN oso berdinduta daude bigarren indar gisa. Nagusitasun abertzalea mantentzen da.



## LANTZ

Bailara guztietan ezberdinena. Geroa Baik irabazi zuen Lantz, oso alde gutxiarekin hala ere. UPNk ere indar handia dauka, Podemos eta EH Bilduk oso txikia.



## Bioenergiaren **bahiketa** bukatu da



**A**zaroaren 25ean Ultzamako udal-  
txean ez-ohiko osoko bilkura egin  
zuten. Bertan luze hitz egin zen  
Iraizotzen kokatuta dagoen mindaren tra-  
tamendurako plantaren etorkizun hurbi-  
lari buruz. Bilkurak hartutako erabakia  
bahiketa bukatzea da.

Ultzamako Udalaren esanetan “Hainbat arra-  
zoi izan ditugu kontuan erabaki hau hartzeko:  
2015eko abenduan bukatzen da Nafarroako Go-  
bernuko Landa Garapeneko Departamenduak  
2010. urtean abeltzaintzako azpiegituretarako  
eman zuen 500.000 euroko diru-laguntza baten  
berme epea; eta, beraz, aktibitatea etenez gero  
zenbateko hori ez da itzuli beharko. Plantak Uda-

lari 66.000 euroko galera ekarri dio orain arte  
(bahiketak iraun duen bitartean) eta urtea buka-  
tzerako gehiago izanen da.

Beste diru-laguntza baten berme epea bete  
gabe dago eta hori ez itzultzeko plantaren akti-  
bitateak aurrera jarraitu beharko luke, 216.000  
eurokoa da hau. Horrek epe laburreko 218.000  
euroko inbertsioa eskatuko luke ingurumenari  
buruzko legedia betetzeko, AAI lizentzia eskura-  
tzeko egin beharreko moldaketak egin ahal izate-  
ko. Horretaz gain, mantenuari dagokion dirua ere  
kontuan hartu behar da, motorrak, konponketak  
eta abar.

Bahiketa bukatzean konkurtsoko administrazio-  
leari kontzesioa itzuliko zaio eta haren eskuetan  
geldituko da plantaren etorkizuna: enkantean  
ateratzea edo dena delakoa.”

Oposizioan dagoen Agrupación Ultzama al-  
derdia, aldiz, erabaki honen kontra azaldu zen  
bilkuran zenbait arrazoiengatik; horien artean  
“abeltzainei irtenbide bat ematen ez zaielako, di-  
ru-laguntzak galtzen direlako eta beste aukerak  
aztertu ez direlako”.

Pulunpe aldiakaria abeltzainekin hitz egiten  
saiatu da, baina orain arte erantzun bateraturik  
ez digute eman. Informatzen jarraituko dugu.

### Beharra dutenendako **elikagai** bilketa

**G**ehien behar dutenendako elikagaiak biltzea  
erabaki zuten Larraintzako ikastetxean.  
5. eta 6. mailako ikasleek antolatu zuten  
elikagai bilketa, eta ikastetxe osoko ikasle eta gu-  
rasoek lagundu zuten, baita irakasleek ere, jakina.

Arroza, pasta, gailetak, olio, esnea,  
kontserbak... denetarik eraman zuten ikasle eta  
gurasoek. Klasez klase ikastetxeko aterpera jaitzi  
ziren poltsez beterik, eta 5. eta 6. mailako ikas-  
leek kutxetan sailkatu zituzten, banaketa erraza-  
goa izan zedin.

Denek argi zuten zertarako ematen zituzten  
elikagaiak. Zonaldean bazterketa egoeran dauden  
20 familia ditugu, eta elkartasun sentimendua  
adierazten zuten txikitxoek. Azkenean, furgoneta  
bete kutxa eraman zuten ikastetxetik, zailtasun  
ekonomiko handia dutenei laguntza xumea es-  
kaintzako.

## Neguan ere festak!



**U**dako festa denboraldia pasata, negua hastera  
rekin batera ez dira festak amaitu. Urtea hasi  
baino lehen, Basaburuan ospakizunak izan zi-  
tuzten: Erbitiko festa txikiak eta Aizarozko neguko  
pesta.

Lehenak abenduaren 12an izan ziren. Egunez ez zu-

ten ezer berezirik egin, eta gauarekin hasi zen festa.  
Erbitiko elkarteak afaria egin ondoren goizeko 6ak arte  
dantzaldia izan zuten Los Andus taldearekin. Udan he-  
rri ugartan izan dugu talde hau, eta ematen du gehia-  
gotan bisitatuko gaituela. Dantzaldia amaitzean txoko-  
late beroa edan eta ohera joan ziren geratzen zirenak.

Aizarotzen, ordea, egun osoko egitaraua izan zu-  
ten abenduaren 26an. Pintxo lehiaketa nabarmenduko  
genuke goizeko ekitaldien artean. Ez zen sari bakarra  
izan, zapore onenari, itxura onenari eta euskarazko  
izen politenari eman baitzioten gazta eta ardo botila  
bana. Mus txapelketa ere egin zuten bazkalondoan, eta  
afariaren ostean kontzertua. DJ Maharis ahotso.info  
webguneko pertsonaia izan zen musika jarri zuena.

## Lanzko **abendu** aberatsa



**L**antzen abendu bete-betea izan dute. Ekitaldi aun-  
ditz izan dute. Ohitura zaharrak eta berriak.

## Kirolean kirola baino **gehiago**



Haur, gazte zein heldu asko dituzte bere gain kirol mo-  
nitoreek. Askotan, kirol kontuez ikasteaz gain, kirolariek  
irakasleen jarreraz eta jardunaz ere ikasten dute, hau da,  
monitoreen baloreak bereganatzen dituzte.  
Izan ere, kirol monitore bat, kirol irakasle baino zerba

gehiago izaten da, hezitzailea da, jakintza eta izaeraren  
transmisorea. Hau jakinik, mankomunitateko gizarte  
zerbitzuetatik kirol irakasleendako ikastaro bat antolatu  
zuten, nola irakatsi ikasteko helburuz; bereziki tratu onak  
ardatz harturik.

Hiru monitorek hartu zuten parte, eta gustura aritu  
ziren bai hauek bai dinamizatzaileak. Helburua kirolean  
tratu onak bultzatzeko baliabideak eskaintzea izan zen.  
Jarraibide eta ildo nagusi zenbait landu zituzten, besteak  
beste: autoestimua, komunikazioa, berdintasuna, anizta-  
suna, gatazkak konpontzeko gaitasuna eta lehiakortasu-  
na.





## Urteroko hitzordua **kantu** zaharrekin



Urtero bezala, aurten abenduaren 12an elkartu ziren euskal kantu zaharren zaleak Etxalekuko estatuan. Musikak alaiturik, ordu luzez aritu ziren gure errepertorioko kantu ezagunenak abesten.

Imozko Udalak antolatu zuen ekitaldia, eta hiru musikari jarri zituen kantuak gidatzeko: Imozko Unai Otegi flauta jotzailea, Leitzako Nerea Erbiti trikitilaria, eta Iñigo Agirre gitarra jotzailea. 40 lagun elkartu ziren

bazkarian, eta bazkalostean hasi ziren kantuan.

Bertaratutakoak zonalde osokoak ziren; imoztarrak ugari ziren, noski, baina baita basaburuarak, ultzamarrak eta ateztarrak. Azken honetan kantu talde bat daukate, eta, beraz, ezin hutsik egin kantuan aritzeko aukera paregabe honi. Musikariak ere mordo bat gerturatu ziren; aipatutako hiruez gain, beste hainbat ere egon ziren, denen artean abeslarien ahotsari lagunduz.

Etengabe abesten aritu zen jendea, iluntzeko 20:30 arte. Eta ez ziren mahaitik altxatu haiek nahi izan zutelako, ez, ostatukoek altxarazi behar izan zituztelako baizik, afarietarako mahaiak prest uzteko.

Unai Otegi beraren esanetan, “batzuk ez ziren ase, gehiago nahi zuten oraindik”.

Urtez urte, beraz, indarra hartzen ari da Eguberrietako kantu zaharren bazkaria. Ematen du jendeari gustatzen zaiola mahai

baten inguruan euskal kantu zaharrak abesten aritzea, beste behin ere Unai Otegiren esanetan, “Etxalekun bildutakoak musika eta kantuaeren militante sutsuak dira”.

Orain, helburua maiztasun handiagoan biltzea da, baina horretarako dinamizatzaileak behar dira, musikak beti laguntzen du kantua alaitzen. Birtartean, Atetzen astelehenero biltzen dira, eta beraz, edozein ekimenetarako prest egonen direlakoan nago.

## Larraitzarko ikastetxeko nobedadeak, urtarrilerako



Mugimendu asko azkeneko hilabeteetan Ultzamako eskolan, baina urte bukararako espero genituen albisteek zertxobait itxoin beharko dute. Eskolako izenaren afe-

ran eskolako arduradunek esan zutenenez “Hainbat urte pasa da izena aldatu nahi zenetik, ofizialki bi ikastetxe izen dago eta orain bilatzen ari da biontzako izen bakarra. Urtarrilean jakingo da ofizialki, nahiz eta jada bozketak egin den. “Nahiko argi dago” eta aurreratu digute aldaketa handirik ez dela egongo. Momentuz parte inplikatuak komunikatuko zaie.

Bestetik, eraikinean konponketa obren harira, esan digute “egongo direla” badakitela, nahiz eta “ze neurritaraino izango diren” ez dakiten. “Pausoak ematen ari dira eta urtarrilean bilerak egingo dira aldaketak adosteko”.

## Abian da Euskal Herriko VIII. Mus Txapelketa!



kanporaketa guztiak.

Hona hemen data nagusiak: otsailaren 20an herrialdeetako kanporaketak eta martxoaren 5ean final handia, Zuberoan, Urdiñarbe herrian.

Arrakasta handiko ekimena dugu hau. Iazko txapelketan, Euskal Herri osoko 200 herri baino gehiagotan jokatu zen txapelketako lehen konparaketa, gutxi gorabehera, 4.000 pertsonak parte hartu zuten.

Parte-hartzea erraza da: edonork parte hartu dezake txapelketan. Bere herrian antolatzen den lekuan izena eman edo agertzearekin eta bikoteko 20 euro ordaintzearekin nahikoa du.

**Kartetan abila al zara? Ailegatu da zure abileziak erakusteko aukera! Hemen dago berriz Mus txapelketa.**

Gure eskualdean leku hauetan egingen dira kanporaketak: Basaburuan, Apeztegiberrin, Igoako estatuan eta Gartzaron-go elkartean; Ultzaman, aldiz, Iraizozko estatuan.

Oraingoz data bakarra hitzartua dago, urtarrilaren 23an arratsaldeko lau eta erdietan Apeztegiberrin jokatu dena.

Antolakuntzatik gogorazi dute urtarrilaren bukararako jokatu behar direla

## Anueko **mus** txapelketa



azken aurreko egunerako eta hauetatik atera dira bi finalistak.

Honako hauek izan dira lau bikoteak, txapelduna eta gainerakoak:

Irabaztunak: Miguel Angel Sarasibar Ibarrola (Etxaidekoa) Vicente Otondo Gurbindo (Olague)

Bigarrenak: Juliantxo Otondo Gurbindo (Olague)

Juantxo Iraizotz Etulain (Olagueko Gesaltzekoa)

Hirugarrenak Carlos Juvera Baraibar (Olagueko Juberaren etxekoa)

Jabier Irurita Lekunberri (Boteroren etxekoa)

Laugarrenak Juantxo Olague Olloba-

rren (Lanzkoa) Mertxe Larralde Zandio (Olaguearra, Lantzen bizi dena)

Zer sari izanen zuten irabaztunek inork ere ez zekien, sorpresa baitzen.

Eta azken egunean agertu da saria: erosketak egiteko karrotxo bana gauzez bete, urdaiazpiko...lepa hezurreraino beteak.

Eta gainera asteburu baterako Espainiako hotel batera joateko bale bat.

Arrakasta handia izan du txapelketak parte hartu duten guztien pozerako.

Eta lagunarte ederrean izan dira joko egunak, parte hartzaile eta ikusle guztiendako.

Datorren urtera arte.

Hemen jokatzeko den mus txapelketa Olagueko gazteriak antolatu izan du orain arte, baina beti Olagueko besta aurrean. Aurten, udalak egindako estatua ireki du-

tela eta, udazkenean ere antolatu dute eta Anue guztirako gainera. Horrela, aurten, 22 bikotek hartu dute parte, bi taldetan bereizita. Gauzak horrela, lau bikote sailkatu dira



## Mostapha Charki korrikalariarekin **berriketan**

Afrikan jaiotako korrikalari euskalduna dugu Charki. Goi-mailako lasterkaria, gizon umila eta xaloa. Baditu lagunak Ultzama aldean. Hemen duzue elkarriketa.



### Non jaioa zaitugu?

Herri Bereber batean. Hiru urterekin etorri nintzen Frantziara familiarekin.

### Eta Nafarroara, noiz iritsi zinen?

Orain dela bost bat urte heldu nintzen, Burlatara, hain zuzen ere. Burlata da nire adopzio herria, bertan oso maitatua sentitzen naiz, oso gustura.

### Eta lasterka, noiz hasi zinen?

Hiru urterekin gurasoekin hasi nintzen korrika, aita ere lasterkaria baitzen.

### Lagun asko duzu kirolaren inguruan?

Bai. Ultzama aldean ere bai, Vanesa Pacha, Xabi Villava, Oskozko Peio Conde...

### Lesioekin izan al duzu zortetik?

Egia esan, azken boladan ez, orain dela pare bat urte artio bai. 32 urte ditut.

### Eta elikadura zaintzen al duzu?

Ni atleta oso berezia, atipikoa naiz, denetarik jaten dut. Deus erreparatu gabe beti pisu berean egoten

naiz.

### Bat erratekotan, garaipen bat?

Hemen etxean Hiru-Herrikoa irabazi nuenean, entrenatzen naizen tokian eta nire inguruko jendearen aurrean izan zelako. Nolanahi ere, lasterketa garrantzitsu askotan hartu dut parte, esate baterako, Nafarroako Txapelketa, Euskadikoa, pistan...

### Sariak, trofeoak non gordetzen dituzu?

Dezente ditut bai etxean; hala ere, jarraitzaile ugari ditudanez, asko oparitu egiten ditut hurrei eta...

### Etorkizunean, zer espero duzu?

Batetik, korrika egiten segitzea, gorputzak iraun arte, bestetik, laster aita izanen naiz eta ilusio handia dut.

### Zer afizio gehiago duzu?

Bidaiaitzea, hizkuntzak, kultura ezberdinak ezagutzea...

### Pairatu al duzu inoiz arrazakeriarik?

Bai. Marokon, bai Frantzian, bai Espainian pairatu izan dut. Ez dut ulertzen pertsona bat beste bat baino gehiago sentitzearena, ezin dut ulertu, tristea da oso.

### Non ikasi zenuen euskaraz, zergatik?

Burlatan, euskaltegian, besteak beste, lagunak euskaldunak zirelako, , gainera euskal eta bereber kulturak parekotasun handiak dituzte.

### Eskerrik asko, Mostapha!

Eskerrik asko zuei!

JOXE JABIER ELZALDEK BIDALITAKO TESTUA

## 04/08 epaiketa aurrera doa



Legez kanporatutako ezker abertzaleko alderdietan aritutako kideen aurkako azken epaiketa aurrera doa, zortzi urte geroago. Guztira 35 dira epaitutako herri-tarrak, tartean Gorka Etxeberria basaburuarra eta Patxi Urrutia, urtetan Ultzaman bizi izan zena. Bakoitzari hamarna urte eskatzen dizkiote 04/08 sumarioko epaiketan, “Segurako mahaiarena” ere deitua. Patxi, Gorka eta beste hogeita hamahiruak libre gera daitezen aldarrikatzeko, eta epaiketa politiko oro eten dadin eskatzeko, elkarretaratzea egin zen abenduaren 12an Ult-

zamako udaletxe parean. Gorka Etxeberriak abenduaren 10ean deklaratu zuen. Hau hitz hauek esan zituen: “Bakarrik esan nahi dut gazte gaztetik ezker abertzaleko militantea izan naizela eta orain ere banaizela. Nire herrian garatu dut nire militantzia politikoa ezkertiar independentista gisa, eta, hortaz, ba bai, aktibitate politikoa egin dut sinesten baitut Nafarroa eta Euskal Herria libre eta sozial batean. Ez dut besterik esango”. Epaiketaren lehen herena egin dute jada. Urtarrilaren 11n abiatuko da berriz eta martxoaren 7an amaitu.

## Tunelak **konpontzen** jarraituko du Gobernuak



2016. urteko aurrekontuak aurkezten jarraitzen du Nafarroako Gobernuak. Azpiegiturei dagokienez, lehentasuna errepideak konpontzeak izango du. Dagoeneko 7,5 milioi euro esleitu ditu N-121-A errepideko tunel nagusiak Europako Batasune-

ko segurtasun neurrietara egokitzeko. Belate, Almandoz, Oiategi eta Sunbillako tuneletan ibilgailuak baztertzeko lekuak jarriko dituzte, ura husteko sistemak, erretzen ez diren kableak, sua itzaltzeko sistemak... 2016 eta 2019. urteen artean egingo dira lanak.

## Iritzia

### Itomena



Anjel Lertxundi  
BERRIA egunkarian

Ez ditut emaitzak ezagutzen, esate-ra noanak berez ez dauka zerikusirik bartko trapalarekin —edo, tamalez, seguru asko bai—, baina azken aldi luzean hedatzen ari den inpresioarekin nator ni: mundua txikitzen ari zaigu, eta, Kafkaren ipuin laburreko saga bezala, gu ere etsipenaren txokora biltzen hasita gaude, erretiradan eta bazter-


tzen, uzkuratzen.

Egoera berriaren zergatien artean, hona ba tzuk (ez dira inondik ere guztiak): kapitalismoak guztiz galdu du lotsa; diktadura bigunek demokraziaz mozorrotutako forma sibilinoagoak hartu dituzte; kontsumismoak inoiz ez bezalako askatasunean bizi garela sinestarazi digu; diskurtso gaiztoenak ze-

lofan zibilizatuan bilduta datoz, bidegabekeria latzenek irribarre kortesiatsua dute bidelagun eta ez habano baten kiratsa.

«Ai, mundua estutzen ari da!», estutu zen sagua. Eroso ustean bizi ginen, ematen du hasi garela egoera berriaz jabetzen. Oraindik ez, ordea, saguaren itomena sentitzeraino.

## Irudi batean





# Herriz herri **hitzak** eta jakiak banatzen

**Goizeko hamaikak inguru Odietako herri txikitxo horietako batean. Behe lainoa nagusi da. Txakur batek mesfidantzaz begiratu digu bere etxeko ataritik. Errepidetik motor zahar baten burrunba entzun da, eta txakurak belarriak tente jarri ditu supituan. Meeek! Kamioiaren klaxon ozenari txakurak uluka erantzun dio, Uuuuu! Egutero-egutero errepikatzen da erritual txiki hau, herriko biztanleentzat banatzailea ailegatu den seinale.**



Javier Erice Anotzibarren

**G**oizeko bostetan hasten du egutero-egutero Javier Erizek bere jarduna. *Panasara* joan, kamioia ogiz kargatu eta herrietatik itzulia egiten du. Gaurkoan, Urritzolan adibidez, hiru bizilagun besterik ez dira atera ogia erostera: “Duela 30 bat urte, ogibide honetan hasi nintzeanean, herriko guztiak elkartzen ziren hemen eta egutero kontuei buruz aritzen ziren tartetxo bat. Baina orain erlazio hori guztia desagertzen ari da gutxika”. Gure gizartea nola aldatzen ari den testigu dira banatzaileak: “Lehen, mundu guztia lan egiten zuen herrian eta orain kanpoan lan egin eta ahal dutenean egiten dute egutero erosketak”.



Latasako Nancy Santacruz

**O**dietako Latasan bizi den Nancy Santacruz oraindik egutero dator ogi bila. Peruko Arequipatik etorri zen duela bi urte Latasako *Apezeneako* Elizondo familiakoak zaintzera eta “oso pozik” dago gure artean, etxekoak “oso jatorrak” baitira. Goizero ogi bila ateratzea eskertzen du Nancyk, “bizilagunak elkartzen gara eta

zenbait kontu arinei buruz” hitz egiten dutelako. Eguteroietako egun hauek “tristura” puntu batekin bizi ditu peruar honek, nahiz eta teknologia berriei esker “hurbilago” sentitu, “laguntza handia ematen digu internetak eta segapotoek”. Guraso zaharrak ditu sorterrian eta ahal den gehienetan komunikatzen da haiekin. Euskara ikasten saiatzen ari da ere, eta vengo a por mi ardua y mi ogia esaldiarekin agur esan diogu elkarri barre artean.



Txuma Ostiz Lantzen

**A**rraina, fruta eta haragia banatzen ditu Txuma Ostizek. Beste banatzaileak bezala, goizaldeko 5etan esnatzen da erosketak egiteko. Gazte hau Ororbian bizi da eta asteartetan, adibidez, Lantz eta Olague aldetik hasi eta Iraizotzen bukatzen du. Lantzen harrapatu dugu eta gazte honek labur-labur esan digu igande eta astelehenetan ez duela lanik egiten arraina ez dagoelako.



**L**atasan zeuden gure hurrengo bi protagonistak ere. Lehenengoak ez digu bere ize-na esan nahi izan, baina “jan behar badugu zerbait erosi beharko” bota digu ailegatu bezain pronto. Herriko emakume honek normalean ogia, ardoa eta limoiak erosten ditu. “Oinarrizko jakiak”. Hurrengo *Karakoetxeako* anai-arrebetako bat hurbildu zaigu, harrituta euskaraz hitz egiten ari ginelako. Pulunpe aldizkaria egiten dudala esan eta “igual ez baduzu ezer egiten” erantzun besteak. “Ez dugu entenditzen, ez dugu leitzen” esan digu irribarrets. Elkarriketa luzatzen saiatu naiz, baina aldizkarian “paatzeko” intentzioa nuela esan eta hitz egiteko gogoak joan zaizkio.



**U**rritzolan berriro Javierrekin hitz egiten ari-tu gara tartetxo batez. Gendulainen bizi da “betidanik”. Goizean goizetik egutero ordu bata arte lan egiten du, “hori bai”, argitu nahi izan digu, “jai egunak, eguteroiak eta zubietan ere lan egin behar, ez pentsa”. Duela 31 urte ogia bakarrik banatzen hasi zen eta orain “pixka bat denetarik” eraman behar. “Asteko egun batean edariak ere eramaten diet jatetxe eta ostatuei”. Etxe bateko atean ogi barra batzuk utzi ditu, “bizilagunak ezin dira egon eta aurretik eskatzen didate zer utzi”. Herriko emakume batek ere beste etxeentzat erosi die ogia, baina korrika ospa egin du etxera hitz egiten saiatu naizenean. Javierrek hau guztia kontatzen digun bitartean herriko txakur bati ogi zati bat bota dio, bien arteko eguteroak akordioa da, zaunkarik ez ogiaren truke. Txakurra buztana mugitzen itzultzen da bere etxera.



Maria Luisa eta Yago

**G**alaina jaitsi gara eta bertan hurbildu zaigu Maria Luisa Urrutia Yago bere biloba gurditxoan zekarrela. Egutero erosketak egiten zuen bitartean kontatu digu baztandar honek “apirilean 44 urte beteko dituela” Galaingo *Etxeberrian*. Bertakoa sentitzen da, “nola ez” eta Baztan aldera bixitan gutxitan joaten da jada “gurasoak hil zirenetik”. Familia osoa du herrian eta biloba zaintzen du umearen ama lanean dagoelako. Baztango euskara ederrarekin adierazi dit gizonarekin beti euskaraz aritzen dela, baina semea “erdalduna” atera zaiola, dio irribarrets. **PULUNPEREN** inguruan ere komentatu dit “arrunt gaiztoa dela leitzeko” eta berak ez duela ulertzen, baina alaba eta bere gizonak bai irakurtzen dutela gustura. “Hizkuntza guk jaso genuen sortzez eta ez eskolan”.

Juanjo Iribarren eta Fermin bere koinatua ere banatzaileak dira. 40 urte daramate haragia, fruta eta arraina banatzen. Goizean goiz Mercairuñan, hiltokian eta halako lekuetan egutero erosketak goizeko 6etan egiten dute. Biztanleekin duten erlazioa azpimarratzen du Juanjok: “Jendeak badaki zer ordutan pasako garen. Jende zahar asko dago eta askotan sukaldara igotzen diogu erosketak”.



Erripako Segi, ogi zatia ahoan duela

**G**ure ibilbidea Erripan bukatu da Javierri bere denbora gurekin emateagatik esker-tuz. Egutero egutero egiten du, abendu guzti honetan bezalaxe. Herri askotan ibili gara eta jende askorekin hitz egin dugu. Ez dakit gauzak hobera edo txarrerara aldatzen ari diren, baina tira, oraindik ere gustura ateratzen gara kalera egutero berotzen duenean.







# ZOKETA MUNDIALA 2015

## SARIEN ZERRENDA

| 0  | Produktua                   | Nork emana / Nongoa             | Zenbakia saritua | Nori egokitu zaion                 | Nongoa den |
|----|-----------------------------|---------------------------------|------------------|------------------------------------|------------|
| 1  | 1 Zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak               | 8260             | Patxi Oskotz Prim                  | Iruñea     |
| 2  | Esneki sorta                | Postres Goshua                  | 12404            | Begoña Oiartzun Etxandi            | Urritzola  |
| 3  | 2 Zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak               | 1049             | Rosario Erro-Florestarrak          | Iruñea     |
| 4  | Gazta                       | Juanbeltz Gaztandegia (Ametza)  | 14516            | Izaskun Larraiotz Etxenike         | Arraitz    |
| 5  | Erosketa bonoa (10€)        | Apeztegi berriko denda          | 10451            | Riki Arangoa Legarra               | Gartzaron  |
| 6  | Gazta                       | Olaetxea Gaztandegia            | 14526            | Ana Mari Satrustegi                | Gartzaron  |
| 7  | Tarta                       | Mentxu Pikabea, Ilarregikoa     | 16270            | Joxe Narbaetz Pagoto               | Oskotz     |
| 8  | 3 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak               | 17044            | Jose Ignazio Huarte                | Aroztegi   |
| 9  | Bazkaria 2 pertsonendako    | Lanzko ostaturia (Ametza)       | 13259            | Maria Jesus Galain Matxinena       | Larraitzar |
| 10 | Zerri gizena                | Ametza                          | 9225             | Mikel Belasko                      | Iruñea     |
| 11 | 4 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak               | 10560            | Eduardo Allo Gutierrez             | Barañain   |
| 12 | Esneki sorta                | Postres Goshua                  | 10398            | Pello Dorai Bengoetxea             | Beramendi  |
| 13 | 5 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak               | 14781            | Edume Telletxea Juanena            | Saldias    |
| 14 | Gazta                       | Maitzenea gaztandegia (Ametza)  | 14685            | Javier Txokarro                    | Iruñea     |
| 15 | Erosketa bonoa (10€)        | Apeztegi berriko denda          | 4105             | Birgina Ihaben Oiartzun            | Egillor    |
| 16 | Gazta                       | Juanbeltz Gaztandegia (Ametza)  | 3121             | Brigida Irujo Goikoetxea           | Iruñea     |
| 17 | Ileapaindegiko bonoa        | Rakel Ileapaindegia Lizaso      | 5549             | Joseba Azkona Comas                | Zizur      |
| 18 | 6 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak               | 18883            | Sara Baleztena                     | Donamaria  |
| 19 | Bazkaria 2 lagunendako      | Ibarneko borda Beruete (Ametza) | 17967            | Esteban Jaunarena Ezkurra          | Gartzaron  |
| 20 | Zerri gizena                | Ametza                          | 10790            | Luis Elizegi                       | Goizueta   |
| 21 | 7 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak               | 12687            | Ana Isabel Ojer Eguarats           | Lekunberri |
| 22 | Esneki sorta                | Postres Goshua                  | 4635             | Eneko Beratsain Etxeberria         | Auza       |
| 23 | 8 Zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak               | 12234            | Joxean Larraiotz Arregi            | Arraitz    |
| 24 | Gazta                       | Olaetxea Gaztandegia (Ametza)   | 3883             | Jose Antonio Begiristain Azurmendi | Ataun      |
| 25 | Erosketa bonoa (10€)        | Apeztegi berriko denda          | 15175            | Maria Jesus Loperena               | Egozkue    |
| 26 | Gazta                       | Maitzenea gaztandegia (Ametza)  | 10974            | Patxi Ollo Idoate                  | Nabatz     |
| 27 | Ileapaindegiko bonoa        | Elena Ileapaindegia Auza        | 8819             | Maria Iñarra                       | Iruñea     |
| 28 | 9 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak               | 12661            | Enrike Olague                      | Gerendiain |
| 29 | Bazkaria 2 lagunendako      | Orokietako ostaturia (Ametza)   | 8827             | Maddi Fernandez Zabaleta           | Tolosa     |
| 30 | Zerri gizena                | Ametza                          | 5096             | Rosa Altzuarte Inda                | Almandoz   |

|    |                              |                                |       |                            |               |
|----|------------------------------|--------------------------------|-------|----------------------------|---------------|
| 31 | 10 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 13279 | Edume Oskotz               | Larraitzar    |
| 32 | Esneki sorta                 | Postres Goshua                 | 18209 | Maialen Alvarez            | Olague        |
| 33 | 11 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 9345  | Iñaki Azantza              | Burlata       |
| 34 | Gazta                        | Juanbeltz Gaztandegia (Ametza) | 16782 | Iera Garbisu Larrea        | Muskitz       |
| 35 | Erosketa bonoa (10€)         | Apeztegi berriko denda         | 8321  | Rosi Ilarregi              | Itsaso        |
| 36 | Gazta                        | Olaetxea Gaztandegia (Ametza)  | 13283 | Ander Arbilla Zabala       | Larraitzar    |
| 37 | Ileapaindegiko bonoa         | Josune ileapaindegia, Arrarats | 2523  | Nuria Pons Aleman          | Valentzia     |
| 38 | 12 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 7140  | Albina Ekiza Lasa          | Iruñea        |
| 39 | Bazkaria, 2 lagunendako      | Udabeiko benta (Ametza)        | 18216 | Goio Irurita Labaien       | Olague        |
| 40 | Zerri gizena                 | Ametza                         | 18139 | Amaia Senosiain            | Olague        |
| 41 | 13 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 2010  | Santi Sadaba               | Iruñea        |
| 42 | Gazta                        | Maitzenea gaztandegia (Ametza) | 17997 | Unai Senis                 | Barañain      |
| 43 | 14 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 5432  | Jesus Arbiol Fiones        | Zarrakaztelu  |
| 44 | Gazta                        | Juanbeltz Gaztandegia (Ametza) | 5598  | Mari Jose Oronoz Larrea    | Eltso         |
| 45 | Erosketa bonoa (10€)         | Apeztegi berriko denda         | 16019 | Angel Martija Lizaso       | Igoa          |
| 46 | Gazta                        | Olaetxea Gaztandegia (Ametza)  | 19230 | Mirian Aranzadi Barberia   | Latasas-Imotz |
| 47 | Ileapaindegiko Produktuak    | Ana Egozkue, Olaguekoa         | 10710 | Xabier Uitzu               | Goizueta      |
| 48 | 15 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 14009 | Yolanda Larraitzar         | Antsoain      |
| 49 | Bazkaria, 2 lagunendako      | Anue bizirik (Ametza)          | 16586 | Gotzon Peretz de Nanklares | Ostiz         |
| 50 | Zerri gizena                 | Ametza                         | 5551  | Juana Mari Ekai Santz      | Iruñea        |
| 51 | 16 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 12150 | Jon Ziga                   | Lantz         |
| 52 | Gazta                        | Maitzenea gaztandegia (Ametza) | 13688 | Pedro Gomez                | Iruñea        |
| 53 | 17 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 17305 | Iñaki Campos               | Ormaiztegui   |
| 54 | Gazta                        | Juanbeltz Gaztandegia (Ametza) | 3846  | Mª Ascension Astiz Urriza  | Etxaleku      |
| 55 | Erosketa bonoa (20€)         | Auzako Haragitegia             | 16922 | Lanabe Elkarte             | Barañain      |
| 56 | Gazta                        | Olaetxea Gaztandegia (Ametza)  | 12578 | Mª Pilar Alsua             | Auza          |
| 57 | Axuria                       | Ametza                         | 15950 | Miguel Angel Oskotz Artze  | Arrarats      |
| 58 | 18 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 12253 | Asun Baraibar Burgete      | Artika        |
| 59 | Bazkaria, 2 lagunendako      | Benta Migel (Ametza)           | 10932 | Jorge Rodriguez            | Cabanillas    |
| 60 | Zerri gizena                 | Ametza                         | 4638  | Fermin Arbilla Ezkurra     | Iraizotz      |




|    |                              |                                |       |                              |              |
|----|------------------------------|--------------------------------|-------|------------------------------|--------------|
| 61 | 19 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 16756 | Josefina Lizaso Bastero      | Muskitz      |
| 62 | Gazta                        | Maitzenea gaztandegia (Ametza) | 13786 | Pablo Anton Santos           | Iruñea       |
| 63 | 20 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 18186 | Jon Esnaola Iriarte          | Arazuri      |
| 64 | Gazta                        | Juanbeltz Gaztandegia (Ametza) | 19603 | Igor Urritza Zenotz          | Latas-Odieta |
| 65 | Erosketa bonoa (20€)         | Auzako Haragitegia             | 14542 | Lourdes Goñi                 | Lizaso       |
| 66 | Gazta                        | Olaetxea Gaztandegia (Ametza)  | 12930 | Ana Alberro                  | Eltzaburu    |
| 67 | Axuria                       | Ametza                         | 17756 | Patxi Balda Perez            | Bera         |
| 68 | 21 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 5273  | Iñaki Ariztegi               | Lizaso       |
| 69 | Bazkaria 2 lagunendako       | Etxalekuko Ostatua (Ametza)    | 14535 | Lourdes Sarratea Otxandorena | Gerendiain   |
| 70 | Zerri gizona                 | Ametza                         | 4221  | Pili de la Cruz Moya         | Iruñea       |
| 71 | 22 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 8167  | Jurdana Aleman Arbilla       | Orendain     |
| 72 | Gazta                        | Maitzenea gaztandegia (Ametza) | 17849 | Pakita Garro Iribarren       | Erbiti       |
| 73 | 23 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 16950 | Lanabe Elkartea              | Barañain     |
| 74 | Izozki sorta                 | Postres Ultzama                | 10182 | Etxeberri Jatetxea           | Goldaratz    |
| 75 | Kosmetika produktoak         | Aurum Cosmetics                | 10791 | Miren Terese Uitz            | Goizueta     |
| 76 | Gazta                        | Juanbeltz Gaztandegia (Ametza) | 15511 | Jesus Jaunarena              | Gartzaron    |
| 77 | Axuria                       | Ametza                         | 19545 | Miren Berrade                | Iruñea       |
| 78 | 24 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 16556 | Resu Mutilba                 | Ostiz        |
| 79 | Bazkaria 2 lagunendako       | Arraizko ostatua (Ametza)      | 4289  | Francisco Gartzia            | Iruñea       |
| 80 | Zerri gizona                 | Ametza                         | 10637 | Nahia Parraga Arangoa        | Berute       |
| 81 | 25 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 4460  | Lourdes Bergera Apeztegi     | Eritzegoiti  |
| 82 | Gazta                        | Olaetxea Gaztandegia (Ametza)  | 17274 | Karmele Zalba                | Iruñea       |
| 83 | 26 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 9724  | Enkarna Martikorena Lasarte  | Igoa         |
| 84 | Izozki sorta                 | Postres Ultzama                | 15108 | Iñaki Muñoz                  | Egozkue      |
| 85 | Kosmetika produktoak         | Aurum Cosmetics                | 9031  | Belen Apeztegia              | Goizueta     |
| 86 | Gazta                        | Maitzenea gaztandegia (Ametza) | 10211 | Karmele Escobar              | Goldaratz    |
| 87 | Axuria                       | Ametza                         | 3643  | Jokin Aranberri              | Zarautz      |
| 88 | 27 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 9643  | Eneko Legarra Beuntza        | Gartzaron    |
| 89 | Afaria 2 lagunendako         | Eltzaburuko ostatua (Ametza)   | 17690 | Zesar Armendaritz Telletxea  | Artajona     |
| 90 | Zerri gizona                 | Ametza                         | 5240  | Amaia Oloritz Rivas          | Atarrabia    |
| 91 | 28 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 14593 | Josefina Goñi Oartzun        | Lizaso       |

|     |                              |                                |       |                             |              |
|-----|------------------------------|--------------------------------|-------|-----------------------------|--------------|
| 92  | Gazta                        | Juanbeltz Gaztandegia (Ametza) | 2538  | Luis Pons Aleman            | Valentzia    |
| 93  | 29 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 15331 | Asun Uritz Huarte           | Leazkue      |
| 94  | Izozki sorta                 | Postres Ultzama                | 8316  | Maider Astitz               | Itsaso       |
| 95  | Zizelkatu segapotoa          | Angel Beuntza, Gerendiaingoa   | 15205 | Reyes Peretz Oartzun        | Etsain       |
| 96  | Gazta                        | Olaetxea Gaztandegia (Ametza)  | 7314  | Jesus Mª Oartzun Olasagarre | Egillor      |
| 97  | Axuria                       | Ametza                         | 18184 | Jon Esnaola Iriarte         | Arazuri      |
| 98  | 30 zenbakidun elikagai sorta | Bertako ekoizleak              | 9343  | Txibo Elia                  | Burlata      |
| 99  | Bazkaria 2 lagunendako       | Apeztegiherriko denda          | 9248  | Eduardo Santos              | Iruñea       |
| 100 | Zerri gizen berezia          | Ametza                         | 10983 | Beñat Aleman Ollo           | Iruñea       |
| 101 | Kosmetika produktoak         | Aurum Cosmetics                | 3836  | Nerea Mariezkurrena Ezkurra | Arrarats     |
| 102 | Bazkaria 2 lagunendako       | Laraintzarko ostatua           | 13153 | Karlos Esteiro Martinez     | Erripa       |
| 103 | Tarta                        | Mentxu Pikabea, Ilarregikoa    | 18292 | Javier Vicuña               | Caparroso    |
| 104 | Ileapaindegiko bonoa         | Kristina                       | 15212 | Leire Peretz                | Olague       |
| 105 | Bazkaria 2 lagunendako       | Ultzamako Benta                | 7476  | MªJosefa Beratsain          | Auza         |
| 106 | Sari berezia                 | Joxe Etxarri, Beruetea         | 12010 | Marisa Zenotz Ugarte        | Latas-Odieta |
| 107 | Sari berezia                 | Francisco Orbegoza,            | 7     | Josean Lezaun Jautsarats    | Iruñea       |

## ZOKETA, EDERRA IZAN DA

Laugarren urtea dugu zozketa honekin. Hala ere jende asko da oraindik Zozketa mundiala zer den ez dakiena.



### ZER DEN ZOKETA ETA ZERTARAKO DEN.

Ametzak antolatzen du zozketa hau, PULUNPE eta ESAN ERRAN irratitxoari laguntza emateko. Zertarako pentsatu genuen zozketa hau egitea? Gauza askotarako. Zortzi udalek elkarrekin batera zerbait egiteagatik. Badakizue gure irratia eta aldizkaria Ultzama, Odieta, Atetz, Anue, Lantz, Imotz eta Basaburuan hedatu eta banatzen direla. Dakigunez, elkarrekin egiten dugun ekintza bakarra da. Bestalde, etxeen izenak erabiltzen ditugu edo jendea beren etxeen izenak erabiltzaz animatu eta zirikatzeko.

Eta jakina, dena esan beharra dago, diru poxi bat ere ateratzen dugu PULUNPE laguntzeko.

### NOLA EGITEN DUGUN?

Bertako produktuak zozketatuz egiten dugu dena. Bertako zerriak eta axuriak zozketatuz. Hemengo gaztagileen gaztak eta bertako ostatu guzietan bazkariak zozketatzen ditugu.

Hemengo industri eta komertzio ttiki eta handiek ere beren ahalegintxoak egiten dute: *Apeztegiherria, Harategia Behekoa...*; *Bel, la vache qui rie, Postres tradicionales Ultzama, Goshua, Dorrea Gaztandegia; Edalur pateak, Aurum Cosmetic...*; Eta zer esan zenbait artistek eskaintzen dizkiguten opariez?

### AITZINA GOZL.

Denon artean sortu eta bizkortu dugun Zozketa honetaz oso pozik gaude. Aurrera, aitzina, Zozketa mundialarekin! Bertako hizkuntza, bertako komertzioa, industria eta turismoa sustatuz. Gure ibilbidea ongi bideratua dugu!



## ZOZKETA MUNDITZ EGITEN DA HEMEN

Bai, hau dela eta bestea dela, eguberri aldera zozketa asko egiten da. Baina ez dira denak berdinak. Gu, PULUNPE zure etxean jartzeko ari gara lanean, euskararen alde ari gara. Denok gure hizkuntza aurrera ateratzeko lan egin behar dugu, gure aha-legina egunero egin. Zozketa Mundialak hori du xede, hori du helburu, Pulunpe lagundu, euskararen alde aldizkari hau aurrera atera. Horretan gara desberdinak.

## SARIAK ETA SARITUAK

### INOIZ BAINO SARI GEHIAGO

Aurten inoiz baino produktu gehiago eman dugu. Hala esan genuen eta hala egin dugu. Eta gainera, lehenbiziko hiru urtetan bezala, agindutako sari guztiak banatu ditugu eta baita gehiago ere. Azken momentuan sariei gehitu dizkiegu, zizelkatu pieza bat, gazta gehiago, sagardoak... Eman dako hitza bete? Bai, eta aise gehiago.

### SARI HANDIAGOAK

#### ELIKAGAI SORTA (LOTE DE ALIMENTOS)

Aurten sarituen kopurua gutxitu dugu baina sariak handiagoak egin ditugu. Adibidez, 30 boltsatto eman ditugu, zenbait elikagaiez edo alimentuz be-teak: sagardoa, eztia, gazta zatia, gazta taula, pattea eta ahateki magra. Horietako lau elikagai sartu ditugu poltsatxo bakoitzean.



Beñat Aleman, hamargarren zerriaren irabaztuna. Ezkur eta gaztaina janez hazitako zerria.

## OSTATU ZENBAITEN LAGUNTZA.

Bi ostatuk dohain eman dizkigute bazkariak. Esker mila biei.

### BITXIKERIA

Basaburuko mutil gazte batek hala jarri digu bere txartel batean, zerbait egokitzen bazaio, txerria besterik ez duela hartuko! Eztia baino nahiago urdaiazpikoa, urdai arraitua eta baita urdai gizena ere! Eztia ez, mutil honek zerria nahi du, argi utzi digu.



Marisa Zenotz, Odietako Latasako Paskalenekoa, aurre-aurrean, kontet eta pozik makilarekin. Berueteko Bidegainen, familiakoekin eta Joxe Etxarri artistarekin, Fernanda bere ondoan duela, irripartsu.



Olagueko Amaia Senosiani zerria egokitu zaio

### INOZENTADAK

Inozente bezperan egin genuen zozketa eta horrek halako mesfidantza gisako bat sortu du.

-Zorionak! Zerri bat tokatu zaizu, Felipe!

-Zer habil motel, inozente eguna bihar dela!

Horrelako zenbat erantzun hartu dugun aurten!

Dena dela, hurrengo egunean, ilaren 28ko goizean bai inozentatu zutela emakume bat. Hala esan omen zioten: Zozketa mundialean zerri bat egokitu zaizu, baina gaur bertan etorri beharko duzu Jaunt-saratsa txerri hori jasotzera!

Gero bere iloba guri deika telefonoz, egia ote zen edo, galdezka.

Inozentada kontatu dugu, baina ez gara ausartu inozentatuaren izena jartzen. Bego guretako. Gure sekretutxoia izanen da!

### NUMERO BAT HARTU ETA, HORI SARIDUNA.

Iruñeko Juana Mari Ekaiek numero bat besterik ez zuen erosi eta zerri bat egokitu! Ea zorte ona izaten duen bere ahizpa gaixoarekin, UVIn du eta. Gure nahia eta gogoa berekin izanen du. Besarkada maitekor bat, Juana Mari!

Eta Jon Esnaola Iriartek, berriz, bi sari jaso ditu. Hau duk hau zorte ona! Hala ere iaz handiagoa gertatu zen. Batek bi numero hartu eta biak saridunak. Hori Arraizko Juan Maria Iraola-ri gertatu zitzaion. Ikusirik dago, Iraola, Esnaola, Bernaola, Bildosola... zareten guztiok zortekoak zaretela. Datorren urtean joka ezazue lasai, beti izanen zarete irabazle. Eta Orokietako Olakoak ez ote dira sartzen konpainia honetan?

### SALTZAILEAK

Gure Zozketa aurrera ateratzen jende askok laguntzen digu. Saltzaile bikainak ditugu, musutruk txartel saltzen ibiltzen direnak Pulunpe laguntzeko:

### FAMILIAK

Miel Martikorena. Igoako Salbadoren bordakoa da. Urtero, honek 100 txarteleko takoa hartzen digu. Lehen urtean berak tako bat hartuko zuela esan zigunean, hura poza! Miel beti adiskide izan dugu, beti ongi portatu da gurekin. Eta eskuzabala zela ere bagenekien!

Orduan jabetu nintzen asmatu genuela zozketa-rekin. Bete-betean asmatu genuela. Eta hala suertatu zen, zozketa urtetik urtera bere lekua hartzen ari da.

Familia gehiago ere badugu horrela jokatzeko dutenak, baina aurten ez ditugu aipatuko. Datorren urtean beharko.

### TXARTELAK SALTZEN, SALTZEN, SALTZEN

Aurten inork zapela irabazi badu, hori Itziar Mariezkurrena dugu, Eltsoko Zelaiekoka, 600 txartel saldu dizkigu-eta.

-Bai, hainbat tokitan izan nauk txartelak saltzen, kantutu bazkaritan, bertso afaritan...

Bai, baina 600 txartel saltzeko lan asko egin behar da gero!



Itziar Mariezkurrena saltzailea

Beste saltzaile piperra baino finagoa dena, Feli Aleman dugu. Hau Iruñean aritzen da, bere lagun eta adiskideen artean, eta lehenbiziko urtetik, urtero-urtero, 400 txarteletik gora saldu izan ditu. Aupa Feli, beti izan zara langilea eta euskaltzalea!

Beste hainbat eta hainbat baditugu bi tako saldu dituztenak: Puri Arano, Berueteko Petritxonekoa, Lontxi Olano, Oskoko Erdabidekoa, Inmaculada Fernandez, Beramendiko Mitxeleneko bordakoa, Loli Lakuntza, Oskozko Eskaregikoa, Aritzuko Erramoneko Irazoztarrak, Adur Aleman, Iruñen bizi dena... Bat-bat batzuk utzi ditugu aipatu gabe. Datorren urtean aipatuko zaituztegu.

### NONAHI AURKITZEN DIRA BORONDATE ONEKO JENDEAK

Joan den urtean Imozko Latasako bide batean nindoala, non topatzen dudan Cristobal Beraza, ezaguna.

Ea zer nenbilen eta horrela hizketatu eta berak salduko zizkidala txartelak. Esan bezala, ustekabean egin nuen topo egun hartan herritik kanpoko bidexka hartan Kristobalekin, eta aurten bigarren urte honetan, bi tako saldu dizkigu. Eskerrik asko Kristobal eta Benita Uitz, senar-emazteei.

### OSTATUETAN ERE SALTZEN DITUZTE TXARTELAK

Ostalariak ere beren laguntza ematen digute. Badakigu gure zozketa sistema ez dela oso eroso baina saiatzen dira saltzen.

Aurten inor nabarmentzekotan, Gerendiango ostatua aipatuko genuke. Eta, gero, Igoakoa. Etxalekun ere tako bat saldu dute Maritxu eta Patxik

Esker mila aipatutakoei eta aipatu gabekoei. Denak aipatzeko tokirik ez. Datorren urtean beharko.





*Fermin Arbilla, Iraizkozko Migelenekoak zerri bat eraman du etxera*

Eta idazkari lanean, serio demonio, Josu Larretxea eta Benito Alberro. Gainerakook beste zeregin batzuetan. Puri Arano eta bere alaba Masha ere gurekin izan genituen, laguntzen. Eta irrati lanetan, Josu Martinez, gure irrati langilea.

## BITXIKERIAK

### SALTZAILE ATZENKORRA

Izan dugu borondate oneko saltzailerik ere, baina oso atzenkorra dena.

Ea saltzeko prest zegoen eta baietz erran zigun.

-100 numeroko takoa?

-Bai gizona! Ekarrizak bi tako, aise salduko ditiat nik, ezagun aunditz diat nik.

Eta hala, eguberriak pasa, zozketa eguna iritsi eta deitu nion telefonoz:

-P.: zozketa eguna diagu.

-J.: barkazak, barkazak, erabat atzendua, erabat atzendua! Ez diat bat bakarra ere saldu, eta orain bertan Andaluzia aldean nabilek andrearekin batera. Hurrengoan beharko dik.

Ea datorren urtean burua sorbalda gainean duen adiskide honek!



### SALTZAILE GAZTEENA.

Masha Arano dugu saltzaile gazteena. Gazteena ez bada gazteenetakoa bai, 11 urte besterik ez ditu-eta. Txoritxo batek esan digu Iruñea kantuz ekitaldian hor ibili zela, atzera eta aurrera, gure txartelak saltzen.



### ZOZKETA EGUNA

Zozketa eguna abenduaren 27an izan zen. Zozketa Basaburuko Udalak Udaletxeko sabaian duen aretoan egin genuen. Bikain moldatu ginen. Bi periodista gazte ekarri genituen, Nora Ramoneda Arregi Ilarregiko *Ostatukoa*, eta Aitor Arangoa Mariezkurrena, Beruete *Elizaldekoa*. Ederki aritu ziren mikrotik: naturaltasun osoz, euskal azentu ederrarekin, lasai, trebe, zirtolari, eta atsegin.

Nolako esku zarta hartu zuten bukatzean! Baten bati ikusi genion negar malkoa begitxokoan.



*Migel Angel Oskotzek eskualdean "erori" den axuri bakarra irabazi du*



*Feli Aleman banatzaile fina.*



*Hemen dugu Mikel Belasko, euskalari ezaguna: deituen eta toki izenen esanahiak-eta azertu dituen. Toponimian aditua. Iruñekoa berez, baina Etulainekin lotura duena. Herri honetan hil behar omen du zerria. Behar bada puskarren bat tokatuko zaigu.*



*Nahia Parraga Arangoa, Beruete *ko*. Zerria egokitu zitzaion.*

## ZOZKETA MUNDIALA, 2015

2015eko abenduaren 27an, Jauntsaratsen, Udaletxeko sabaieko aretoan, arratsaldeko 4:30tan, jendarean egin zen zozketa. Eta ESAN ERRAN irratiaren bidez zuzenean transmititu zen.

### BERTAKO EKOIZLEAK HONAKO HAU EK DIRA:

SAGARDOA: Beruete *ko* Behetxoneko borda

GAZTA TAULA: Dorrea Gaztandegia

EZTIAK: Joxe Manuel, Isabel Telleria eta Arantxa Puignau, Etxaleku, Eltso eta Arraizkoak, hurrenez hurren.

PATEAK ETA AHATE MAGRA: Edalur, Iraizozkoa.

GAZTA ZATIAK: Ametzak jartzen ditu.



*Martin Buldain, Beruete *ko* Antsonekoa. Bi zerri prestatu dizkigu aurren. Ametzako ordezkariarekin zerri tratuan. Aurpegi sinesgaitza jartzen dio Juantxori.*



*Benita Uitz eta Cristobal Beraza senar-emazte banatzaileak*



### ESKUALDEKOK EZ DIREN ZERRI IRABAZTUNAK



*Rosa Altzuarte, Alamandozkoa.*



*Luis Elizegi, Goizuetakoa.*



*Amaia Oloriz, Atarrabia-Villavakoa.*



*Pili de la Cruz, Iruñekoa.*



*Juana Maria Ekai, Iruñekoa*



# Aroztegiar bat Iruñean

Aurreko zenbakian Jose Ignazio Huarteren haurtzaroko zenbait kontu atera genituen, Atetzen jaio eta lehen hamabost urtekoak. Haur eta gaztetxo baten kontuak. Gaur besterik dakargu. 1960. urtean Iruñera joan zen familia osoa. Orduan Iruñea hazten ari zen, auzo berriak, fabrikak... Herri ttiki batetik etorri eta Iruñeko bizitza ez zitzaion oso eroso egin Jose Ignaziori.

## Jose Ignazio, zergatik etorri zineten Iruñera?

Ez zegoen bizitza ateratzeko biderik. Zortzi lagun ginen eta denendako lanik ez zen. Gure aitak zuzen pentsatu zuen Iruñera etortzeko kontu horretan.

## Iruñean kisuskilgoan hasi al zineten?

Bai eta ez. Hasieran ahal zen tokian. Ez genuen inor ezagutzen eta gu ere ez gintuzten ezagutzen. Horregatik hasieran ez ginen kisuskil ari izan, baina pixkanaka jendea ezagutuz eta, hasi ginen poliki-poliki kisuskil.

1966. URTEAN SOLDADU. JOSE IGNAZIOREN KOLEGIOA.

## Sei urte Iruñean lanean eta soldadu joan beharra. Non egin zenuen soldadutza?

Ceutara joatea tokatu zitzaidan. Ikaratua. Ez nintzen tren batean inoiz ibili. Oraindik gogoan dut, ostegun batez izan zen, goizeko zortzietan, trenean sar eta helmugara igande arratsaldean iritsi ginen, trenetik jaitsi gabe. Arroltze egosi batzuk ematen zizkiguten jateko tomate saltsa batekin eta hurrengo egunera arte.

## Eta Ceutaraino, nola joan zineten?

Ez, lehenik Cadiza joan ginen, San Fernandoko Kanposoto kanpamendura. Lehenbiziko aldia izan zen familiako babesa eta goxotasuna uzten nuela eta, lehen hiru hilabeteak, oso gogorrak egin zitzaizkidan. Hala ere, denetara ohitzen da bat. Kanpamentua bukatu ondoren joan ginen Ceutara, Algecirasen *La Paloma* zeritzan barkuan sartu eta. Mila lagun barkuaren sotoan sartu eta erdiak bo-taka, ez zen oso atsegina izan, ez horixe!

## Eta nola zen ejertzitza?

Oso serioa eta gogorra iruditu zitzaidan. Soldadu joan ginenok *erregularrekin* eta *legionarioekin* topatu ginen han. Han denetatik bazen. Eta kontua da, izu-garrizko propaganda egin zigutela legioan sartzeko. Eta ez dakit zergatik izan zen hura. Baina, aunditz azpimarratu ziguten, mahuka hutsean ibili zitekeela, bizarra utzi, kalparra luze samarra ibili, denbora libre gehiago...Nik ez nien kasurik egin. Nik *caballeria*



*motorizada* delakoan egin nuen soldadutza.

CEUTAKO KOLEGIOA:MATEMATIKAK EZ DIRA INPORTAN-TEAK

## Behin baino gehiagotan erran didazu zureta-ko soldadutza kolegioa bezala izan zela.

Bai, zorte handia izan nuen. Nafarroako bost lagun ginen. Horietako bat Atarrabia-Villavakoa zen eta Salesianoetako irakaslea zen. Ez zen oso trebea esku-lanetan eta ni berriz bai. Nik gauza horietan la-guntzen nion eta oso adiskide egin ginen, eta honek ongi idazten erakutsi zidan. Eta hori oso inportantea izaten da bizitzan. Lehenbiziko gutunak etxera berak idatzi zizkidan.

## Eta matematikak?

Ez, matematiketan lau erregelak banekizkien eta bi-zitzan, gehienetan, ez da gehiago behar izaten, bai-na idazten jakitea oso inportantea da.

Iruñeko MEPANSA ENPRESA: JOSE IGNAZIOREN UNIBER-TSITATEA.

*Soldadutza bukatu eta kisuskilgoan hasi zen anaia-rekin baina laster bereizi ziren. Eta, berriz lan bila hasi behar.*

## Kisuskilgoa utzi eta lan berri bat hartu zenuen.

Lanez aldatu nintzen, bai. Orduen artioko lanekin ez nintzen inoiz konforme izan. Ez nintzen kisuskilgoan konforme. Beste zerbait nahi nuen, baina garbi neu-kan prestakuntza falta zitzaidalda.

## Eta?

Garai hartan Orikainen zen altzari fabrika batek po-rrot egin zuen eta *Mepansak* erosi zuen. Hau ere altzari fabrika zen. Hori 1970. urtean zen eta orduan Espainiako industrializazioa indar handiz ari zen



hazten.Gertatu zen, nire arreba eta bere gizona, Mi-guel, *Mepansako* komertzio-zuzendaria zen Mario Ortégaren auzoak zirela. Eta erran nion koinatuari: *zergatik ez diok erraten Mariori Mepansan ea har-tuko nauten?*

## Eta kontrukzioetik Mepansako katean lanera.

Bai, bai, ni orduan prest nengoen fabrikan sartzeko. Eta joan nintzen gizon honekin egotera eta elkarri-zketa egin ondoren, non erraten didan: *Katean ari-tzeko ez, zureta-ko banuke gauza hobea*. Eta orduan armario enpotratuendako bazuten ate plegable bat egin berria. Eta erran zidan, *zu jarri behar zaitut hau promozionatzeko Espainia guztian*. Askatasun osoz ariko zara lanean, nahi duzun tokietan agenteak ja-rri...zuk erabakiko duzu zer egin.

## Eta zuk besterik gabe, baietz erran.

Bai, lotsagabe jokatu nuen. Nerone ere harritzen naiz zein ausart erran nion baietz. Lehen trajea erosi beharra izan nuen. Lan horretan bi urte egon nintzen

AROTEGI BIHOTZEAN

## Zu Iruñera joan, baina Aroztegin egin zenuen etxea.

Bizitza guztian ez dut Aroztegi ene bihotzetik ken-du ahal izan. Senide guztietan bakarra naiz ho-rrelakoa. Bai, hauek etorri izan dira noizbehinka, baina ni...erranen nizuke ez dudala asteburu bat ere huts egin Aroztegiara etorri gabe.

## Baina zuek ez zenuten etxerik.

Ez, baina igandero etortzen nintzen, goizez, ber-

eta ez zuen fruiturik eman. Benetan ate hura saltzea zaila zen eta enpresan ere horren jakitun ziren eta promozio horri bukaera eman zioten.

## Eta zu kanpora.

Ez, ez, hiru aukera jarri zizkidaten. Horietako bat Madrila joatea zen, Alcala de Henaresen zuten al-mazen batean buru jartzeko. Eta Madrila joan nint-zen. Han beste hiru urte edo gehiago egon nintzen. Garai hartan, 1974, 1975, 1976. urteetan izugarri, baina izugarri saltzen zen. *Mepansa* dirua egiteko makina zirudien. Baina krisia etorri zen.

## Petrolioaren krisia deitu izan dena.

Bai, batetik bestera, kontrukzio enpresak ez pa-gatzen hasi ziren. Denbora gutxian ez pagatze hori izurritea bihurtu zen. Espektakularra izan zen. Izan ziren hilabeteak, Madrilen bakarrik, 80-100 milioiko letra eta faktura itzuliak. Espektakularra izan zen. Hura ikusirik eta han etorkizunik ez zegoela, etsi hartu eta kontua eskatu nuen. Hori 1978. urtea zen. Enpresari urte bateko paroa eta miloi bat peza es-katu nizkion. Urte erdiko paroa eta milioi erdi peza eman zizkidaten. Hainbesteko dirurik ez nuen inoiz ikusi ere egin.

## Eta berriz ere lan bila.

Ez, ez, nire enpresa sortu nuen. Kontrukzioan hasi nintzen, baina zaharberritze lanetan. Beti gustatu izan zait gauza zaharrak hartu eta konpontzea eta berritzea. Ene bizi guztian hori gustatu izan zait.

## Geroztik horretan aritu izan zara.

Bai, beti horrela, gehienetan kontrukzioan, baina batzuetan nik erosi edifizio zahar bat eta konpondu ondoren saldu ere bai, promotore bezala. Iruñeko parte zaharrean aritu naiz. Auzo horretako obren er-diak nik egin izan ditut, ja, ja!

tako jendeekin egotera. *Matxikonekoekin* batez ere, baina besteekin ere bai.

Eguerdian berriz Iruñera, lehen urteetan bizikle-tan edo motoan edo, eta gero autoan. Ondoren, 1980. urtean alor bat erosi eta etxea egin nuen.

*Harrigarria, Jose Ignaziok Aroztegi izan dion atxikipena, maitasuna! Jose Ignazioz erran de-zakegu haurtzaroa izan dela bere benetako abe-rria. Edo haurtzaroan bizi izandako herria.*

HIZTEGITXOA  
HELMUGA: destino, final  
BABESA: protección

SOTO: bodega  
ALTZARI: mueble  
IZURRITE: epidemia





IMANOL LOHIARTE, ABELTZAINA ETA LANZKO BIZTANLEA:

## “Bizitza osoa daramagu honetan”

Tolosan egin zen Euskal Herriko behi frisiarraren txapelketan, Lanzko abeltzain batzuek sari nagusiak irabazi zituzten. Bisita egin diegu haien esplotazioan.

### **Lanean familiako hiru kide ari zareete, ezta?**

Bai, lehengusu-lehengusinak gara. Duela hamalau bat urte elkartu ginen honetarako. Hasieran janaria kanpotik ekartzen genuen, baina duela zortzi urte hobekuntzak egiten hasi ginen: esaterako, biltegia eraiki genuen, simaurtegia osatu eta abar... horrela daramazkigu urte dezente, eta orain jada guk ekoizten dugu animalien janaria.

### **Aldaketek lan zama handiagoa ekarri al dute?**

Bai, duela urtebete langile bat kontratatu genuen eta

geroztik hobera goaz, bestela ez ginelako eginbehar guztietara iritsiko. Lan asko sartzea eskatzen du honek eta, bizi ere, bizi behar da.

### **Aspaldiko abeltzainen izaerarekin, beraz, ez duzue bat egiten...**

Tira, orain arte ahal genuenean bakarrik disfrutatzen genuen, baina langile bat sartzeak ekartzen dituen onurak ikusita, horrela jarraitzea erabaki dugu. Langile berriak larunbatero egiten du lan; nik, adibidez, asteburu batean libratzen dut eta hurrengoan igandean lan egiten dut; hori bai, larunbat horretan guardia izan ohi dut, edozein gertakariri aurre egiteko: jaiotzak, intseminazioak edo dena delakoak. Martin berdintsu dabil; beraz, hilean bi asteburuz lan egiten dugu. Aisialdia, denbora libreza izan eta deskonektatzea beharrezkoa dela uste dugu.

### **Zein da Beniren zeregina?**

Lan administratiboetan aritzen da. Paperekin lotutakoa ez da lan xamurra, eta hor norbait izatea laguntza handia da.

### **Aurten Euskal Herriko Behi Frisoia Txapelketan arrakasta handia izan duzue...**

Bai, inoiz ez ginen txapelketa hauetara joan. Estatu mailako txapelketetara joanak ginen noizbait, Gijon eta Torrelavegara, baina lan handia zen hor bost egunez egon behar genuelako. Horrek urduritasun handiagoa eragiten zien behiei, bidaia luzeagoa zen, egun batzuk lehenago joan behar genuen animaliak girotzeko... Aurten Tolosara joan gara. Honetarako, hilabete bat lehenago prestatu genituen bost animaliak: elikadura pixka bat aldatu genuen, hauek “beteta” geratzeko, eta errapeak ere zaindu genizkien. Estatu mailan bitan izan gara txapeldunorde, eta errekonozimendu ezberdin asko ere lortu ditugu. “Banderatxo” moduko batzuk ematen dizkigute halakoetan,

### **Zein da zuen sekretua?**

Beno, guk abere onak ditugu, urteak eta urteak daramazkigulako behiak hazten. Bizitza osoa daramagu honetan: nik hamasei urterekin ikasi nuen intseminatzen, orain hogeita hamazazpi ditut eta bertan jarraitzen dut. Beti gaude hobekuntzaren bila, eta hemen denak dauka eragina: elikadurak, genetikak eta kudeaketak. Sariak duten gauza ona da gure lanari entzutea ematen diotela, eta horrek lan aukera ezberdinak irekitzen dizkigu, zekorren salmentarako adibidez.

## Jubilaziorik ez



Euskalduna? Euskalduna izatea zer den? Euskalduna nor den? Euskaraz aritzea izanen da, edo hobeki esan, da. Nik uste, horretan denok ados gauden. Gaurkoan basaburuar bat dakargu sail honetara, euskaldun peto-petoa, euskaraz aritzen baita, eta gainera, lanean ere euskaraz ari baita. Euskaraz hazi zuten gurasoek. Migel Mari jaio zenean, 1944. urtean Itsaso erabat euskalduna zen: karrika eta etxeak. Gaztettoa zenean, Iruñeko Seminaria joan zen eta hari honetatik hasi gatzazkio galdezka.

### **Inongo ikastetxetan ez zuten euskaraz ematen garai hartan, baina Seminarioan bai, gerra bukatu eta urte batzuetara hasi ziren noski.**

Bai, ni laugarren urtera iristean hasi zen Don Blas Fagoaga, erratzuarra, gerra aurrean ere aritu zena.

### **Eta zer erakusten zizuten?**

Gramatika batez ere, eta gero irakurtzen eta idazten. NONI ETA MANI nobela denon artean irakurri genuen. Eta beste zenbait liburu ere bai.

### **Hori euskaraz zekitenentzat.**

Bai, hori euskaraz zekitenentzat, baina erdaldun eta euskaldunondako, guztiondako, gure abizenen esanahia, Bonaparteren mapa, eta beste zenbait gauza. Don Blas hil ondoren, urte batzuetara, Don Pedro Diez de Ultzurrun apezka hasi zen lan honetan.

### **Seminarioa utzi eta euskara hobetzen saiatu zinen.**

Bai, bai, hala da. 1975. urteko udan ikastaro luze eta sakon bat eman nuen Iruñean, Euskaltzaindiak eratua. Irakasle handiak izan genituen: Jose Maria Satrustegi, Patxi Altuna, Alfontso Irigoien, Xabier Kintana, Patxi Zabaleta...Hemen atera nuen euskal titulua.

### **Eta gero, maisu sartu zinen.**

Maisu ibili nintzen, Irurtzunen, Ihabenen eta Jauntsaratsen. Eta eskola lanez aparte, euskararen sakontzeko beste ikastaro batzuk egin nituen. Bat, 1990. urtean hartu genuen. Seriotasunez egin genuen prestaketa lan hori han ibili ginen irakasleak. Guretako espres prestatuak ziren eman zizkiguten ikasgaiak. Eta punta-puntako irakasleak izan genituen.

Gero eskoletan, hori guztia praktikan jartzeko izan nituen zailtasun batzuk, baina aurrera egin nuen.

### **Zere bizian euskararen alde aritu izan zara. Orain, berriz, jubilaria hartu eta hor jarraitzen duzu euskaraz lanean.**

Bai, aurretik ere bai. Mezatan irakurgaiak eta beste zenbait gauza egin izan ditut.

Orain berriz, katekesia euskaraz ematen dut, jaunartzeko haurrei, hori Jauntsaratsen. Eta konfirmazio edo sendotzarako ere prestatzen ditut gazteak. Orain Etxalekun ere ari naiz. Den-dena euskaraz.

### **Eta apezak falta diren honetan?**

Seglarrak hartu behar zenbait eginkizun. Horrenatik “HITZAREN LITURGIA” deitua egiten dut Itsason. Hau Elizbarrutiko Liturgia idazkaritzak prestatua izaten da, baina atal batzuk neronek moldatzen ditut, batez ere homilia. Den-dena euskaraz egiten dut.

Eta Itsasotik kanpo ere laguntzaile gisa parte hartzen: zenbait hiletetan, Mikel Goiaingerua etortzen denean, Ihabena, Jauntsaratsa... eta beste zenbait egitekotan ere bai.

*Don Migel Mari Iriarte, euskaldun fierra izan da eta da. Eta kristau bezala ere bai. Eta herri honetan kristau izateko manera bat da pobreen alde egitea. Eta nik diodana, zein da herri pobreakorik euskalduna baino? Aspaldi gaude galzorian eta orain inoiz baino larriago.*

*Iriartek egiten du ahal duen guztia, egunero, jubilaria har eta hala ere kristau eta euskara bi-deei fier segi. Eta diogu, maisuek, alkateek, familiak buruek...egiten ote dute dagokiena? Hori nahi genuke guk, herri honi hats ematea hain zuzen, euskaldun iraun dezan.*





JOSEBA ANDONI ANDOÑO, ZENOZKO BIZTANLEA ETA ARGAZKILARIA

## “Hemen egunero aukera desberdinak dituzu argazkiak egiteko”

Bere irudiak Pulunpe honetako protagonista dira. Aldizkariaren azalean, bigarren orrialdean, fondoetan eta beste zenbait lekutan ditugu Andonik eginiko argazkiak. Lehenengo aldia da holako kolaborazioa egiten dugula Pulunpen, eta oso pozik gaude emaitzaz. Argazkilaritza, natura eta mundua ikusteko moduei buruz hitz egin dugu.

### **Zer motatako argazkiak ateratzea duzu gustuko?**

Hilabete honetan ia lau erakusketa desberdin izan ditut batera eskualdean: Jauntsaratsen, Larraintzargo Gizarte Etxean eta bertako ostatuan eta beste bat hemendik gutxira jarriko dut. Batez ere zizak eta onddoak agertzen diren irudiak dira, baina denetatik egitea gustuko dut. Zizak hartzea ez dut bereziki gustuko, baina bai paseatzea eta ikusten dudanaren irudia ateratzea.

### **Argazkiak egiteko ekipo ona al duzu?**

Kamera handi horietako bat dut eta objektibo batzuk ere, eta gero ordenagailuan edizio lana egiten dut. Lanabes aproposak izatea garrantzitsua da argazkiak egiteko, baina batez ere gero kalitatezko edizio lana egiteko. Duela bost bat urte hasi nintzen argazkiak egiten, mendizalea bainaiz. Nafarroan zaletasun handia dago mendira atera-

tzeko, eta horregatik argazkilari oso onak daude.

### **Gutxika joan zara...**

Bai, baina orain pasio bihurtu da niretzat. Argazkigintzaren bidez, kalean ikusten duzunari berriro begiratzera eta gero hori bera aldatzea gustuko dut. Begi aurrean duguna da, baina artistikoki manipulatzan baduzu beste ukitu bat ematen diozu errealitateari.

### **Gauzei begiratzeko beste modu bat eskaintzen al dizu argazkilaritzak?**

Bai, zalantzarik gabe, farola baten kontra sekulako kolpea hartu nuen leku polit bati begiratzen nengoela! Hala ere, askotan momentu magiko horiek kamera soinean ez daramadala gertatzen dira, eta ez dago arazorik, ez naiz kamera beti gainean daramaten pertsona horietakoa.

### **Eskualde honek oso paisaia politak ditu...**

Hemengo koloreak ikaragarriak dira, zalantzarik gabe. Hemen egunero aukera desberdinak dituzu argazkiak egiteko. 10 egun daramat itxoiten lainopeko argazki bat egiteko eta elkarriketara bidean behe-lainoa zeinen ederra dagoen pentsatzen etorri naiz... zaldiak lainopean ikusi ditut, zuhaitzak laino artean... gaur egun perfektua da argazkiak ateratzeko.

### **Gero eta kamera gehiago dago jendartean, baina egiten diren argazkiak ez dira lehen baino hobeak... Trebakuntza lana falta al da?**

Gaur egun jende asko da argazkilari, hemen dudan erakusketako bi argazki segapotoarekin egin-dakoak dira eta oso jende gutxik esan ahalko luke zein diren. Nik beti esaten dut argazkirik onenak egoerarekin zerikusia dutenak direla, momentuan zerbaitegatik egindakoak.

*Elkarriketa azkar amaitu da laino artean hemen ikusten duzuen argazkia egitera joan garelako, momentuak hala eskatzen baitzuen.*

**Familiari-edo norbaitek argazkiak egitea behar duzu? Hemen duzu Andoniren kontaktua: andonixetxea@gmail.com**

## Urtea amaitzeko, korrika!

Urtero bezala, urteko azken egunean Silbestre Deuna lasterketa egiten da, eta Ultzaman urteak dira bertan korrika egiteko aukera duguna abenduaren 31n. Aurten, gainera, parte-hartzeak gora egin du, eta ederki pasa zuten bertaratu ziren guztiek.



Txikien artean 105 neska-mutil aritu ziren korrika, beste urteetan baino gehiago. Arratsaldeko 17:30ean hasi zuten lasterketa, eta 18:00ak baino lehenago amaitu zuten denek.

-6-7 urteko kategorian 33 korrikalari aritu ziren. Unai Mindegia izan zen irabazlea, Josu Orkin bigarren eta Nahia Zenotz hirugarren.

-8-9 urtekoen artean 20 parte-hartzaile izan ziren. Irabazlea Migel Barberena izan zen, Iker Martikorenaren aurretik.

-10-11 urteko kategorian 26 gaztetxo aritu ziren. Urtzi Zulaika izan zen azkarrena, Itsaso Gerra eta Andoni Sarasibarren aurretik.

-Azkenik, 12-15 urte artean 24 korrikalari izan ziren. Txapelduna Josu Oiartzun izan zen, Oier Urritza bigarren eta Lanzko Ane Mariezkurrena hirugarren.

-Ondoren 4 eta 8 kilometroko lasterketak etorri ziren. Goraipatzekoa da Larraintzarko ikastetxeko 4. mailako ikasleen laguntza, Asier Uriarte kirol teknikariari ederki lagundu baitzioten. Martin Pikabea zinegotzia, Zeferino Elizondo, Zulu Braco... ere boluntario aritu

ziren, dena ederki atera zedin.

-4 km-ko lasterketan 33 parte-hartzaile izan ziren, iaz baino 8 gehiago. Mutiletan azkarrena Anueko Dabid Egozkue izan zen, bigarren Mikel Pro iruindarra, eta hirugarren Aritz Olague iraizoztarra. Nesketan Lekunberriko Olatz Gonzalez izan zen azkarrena; goraipatzekoa da gainera, sailkapen orokorrean bigarren izan zela, Dabid Egozkueren atzetik, baina Mikel Pro, bigarren mutilaren aurretik. Bigarren neska Uxue Zirizar izan zen, eta hirugarrena Eltsoko Ana Iraizotz kirolari nekaezina.

Eta amaitzeko, 8 km-ko lasterketan, iazko txapeldun Mikel Beuntza ez zen agertu, eta beraz, lasterketa irekia zegoen. Mikel Gerra izan zen aurtengo irabazlea mutiletan, baina ezin izan zuen Mikel Beunzaren marka gailendu. Bigarren Isaac Alvarez izan zen, sei segundo beranduago, eta hirugarren Imanol Lukanbio. Nesketan Cintia Martinez txapeldun, Lucia Oskotz bigarren, eta hirugarren Lizasoko Ainhoa Antzizu. Lasterketa honetan 106 parte-hartzaile izan genituen, joan zen urtean baino 26 gehiago.

## Gartzarongo goxua txapelketaren kronika

Pilota txapelketa nagusia urrian amaituta, pilota goxua txapelketak hartu zuen lekukoa. Honetan Basaburuko bikote ugari eman zuten ize-na, eta hilabete honetan izan du amaiera.

Hiru maila ezberdinetan lehiatu ziren bikoteak, eta abenduaren 19an izan zuten finala Gartzarongo pilotalekuan.

Hirugarren mailan sei bikote lehiatu ziren ligaxka moduan, eta honako bikote hauek izan ziren finala lehiatu zutenak: Mikel eta Josu Basaburukoak eta Adur eta Joanes Imozkoak. Partidaren hasiera oso orekatua izan arren azkenean Etxalekukoak nagusitu ziren 22 eta 16.

Bigarren mailan hamabi izan ziren bikoteak, hiru taldetan banatuta. Zizurko Arribillagak eta Roldanek eta Irurtzongo Gelbentzu anaiek lortu zuten abenduaren 19ko finalera iristea. Partida oso gogorra izan zen; ordu bete eta berrogeita hamabost minutuz aritu ziren tantoak ziurtatu nahian. Azken zatian irurtzundarren maila fisikoa jaitsi zen, eta Zizurkoak izan ziren nagusi hirugarren aldiz jarraian, 22 eta 14.

Bukatzeko, lehen mailan beste sei bikote lehiatu ziren ligaxkan, eta finalera Basaburuko Eneko eta Iñaki, eta Almandozko Gaizka eta Iñaki iritsi ziren. Nahiz eta ligaxkan Basaburukoek erraz irabazi zuten, (22 eta 13) txapela Almandoz aldera joan zen, hauek irabazi baitzuten finala. Partida azkarra eta polita izan zen (22 eta 17).



# Mintzakideekin hizketan

Kontxi solas-lagun berria dugu Mintzabide egitasmoan, Eltsokoa da eta Arraitzaino etortzen da asteartero euskara praktikatzera. Ana “animatzailearekin” hitz egin dugu ere.



Miren, Yoli, Txin, Imelda eta Kontxi, ezker-eskuin

## Nola animatu zinen?

Bada, nik urte asko daramatzat euskara ikasten eta betidanik gehien kostatzen zaidana hitz egitea denez, mintzapraktika talde batean sartu nahi nuen. Helburu horrekin begiratzen hasi nintzen; lagun batek Arraitzen talde bat zegoela esan zidan eta Ultzaman bizi naizenez, aukera ona iruditu zitzaidan. Astean behin elkartzen gara Arraitzen eta oso gustura joaten naiz.

## Baliogarria da zure ustez solas taldea errazago hitz egiteko euskaraz?

Bai, noski. Alde batetik, talde txiki batean askoz errazagoa da hitz egitea, bakoitzak parte hartu dezake solasean. Eta bestetik, lagun artean zaudenez, nahiz eta hanka sartu, ez da ezer gertatzen. Nik uste dut baliabide ona dela hizkuntza aberasteko.

## Erraza egiten zaizu solas egitea taldean?

Bai, konfiantza hartzen duzunean naturaltasunarekin ateratzen zaizkizu hitzak. Azkenean ez da klaera joa-



na talde bateko bide-laguna da, Kontxik dioen moduan, animatzailea. Larraintzarren elkartzen dira asteazkeneko bera eta bere taldea. Talde bateko bide-laguna izatea erabat boluntarioa da, ez du euskara praktikatzeko beharrik, bertzeak bultzatzen ditu euskara praktikatzera. Konpromiso bat hartzen du eta betetzen saiatzen da, horregatik eskertzekoa da bide-lagunek egiten duten ahalegina, eta eskaintzen duten denbora

## Ardura edota ahalegin handia da talde bateko bide-laguna izatea?

Bada, egia erran, ez. Ni ordezkoka nintzen eta orain, irailetik aurrera, ardura hartu dut oso gustura.

## Zertaz solas egiten duzue normalean?

Hasteko zer moduz galdetzen dugu, eta hortik has-

tea bezala. Ez dago inor irakasle moduan, animatzaile bat dago, bideratzen gaituena. Denon artean ongi konpontzen gara eta giro ona dago. Egia esateko oso ongi hartu naute talde honetan eta aprobetxatu nahi dut eskertzeko.

## Nolako gaiak lantzen dituzue normalean?

Edozein gairi buruz hitz egiten dugu; normalean gaur egungo gaiak dira (lana, albisteak, planak...) Joan den astean, adibidez, zinemara joan ginen “Amama” pelikula ikustera eta gero horretaz hitz egin genuen.

## Animatuko zenituzke euskara ikasten ari direnak honelako taldetxo batean parte hartzera?

Dudarik gabe, hasieran esan dudana bezala, nik uste dut euskaraz hitz egiteko aukera ezin hibe dela. Horregatik, animatu nahiko nuke jendea beste herrietan holako taldeak ateratzeko.

## Milesker Kontxi!

ten gara solasean. Inoiz ez zaigu gairik falta, gure gauzetatik hasi gaurkotasunera, denez hitz egiten dugu.

## Hau zure bigarren ikasturtea da taldearekin.

## Erraztasun gehiago antzematen duzu taldekideen artean joan den urtekoarekin alderatuta?

Konfiantza gehiago dagoela antzematen dut, eta horrek lasaitasuna ekarri du gure artean euskaraz aritzeko, hau da, zerbait erran nahi baduzu eta ez badakizu nola, lotsarik gabe galdetzen duzu edo zuzenean erran, nahiz eta akatsak egin.

## Zure ustez baliogarriak dira solas taldeak?

Irtenbide polit bat iruditzen zait mintza praktika egiteko, hizkuntza erabiltzen ahal duzulako egoera erreal batean, kafe bat hartzen, eta zure intereseko gaiez hitz egiten ahal duzulako, inongo presiorik gabe, zure erritmora.

## Animatuko zenituzke euskara ikasten ari direnak honelako taldetxo batean parte hartzera?

Dudarik gabe, euskara edo, edozein hizkuntza, bizitzari lotuta egon behar dela pentsatzen dut, gure nahiak, emozioak, pasatzen zaizkigun gauzak kontatzeko, erosketak egiteko, kafe bat hartzeko... erabilgarria izan behar zaigu eta hurbilean sentitu behar dugu.

ANA INSAUSTI: AUZAKO BIZTANLEA, PULUNPE BANATZAILEA ETA INGELESA IRAKASLEA

# “Saiatzen naiz klaseak dinamikoak eta dibertigarriak egiten”

Hiru urte dira jada Txantrea utzi eta Auzako aitaren etxera itzuli zela bere haurrekin batera. Jatorriz ultzamarra dute aita, baina txikitatik Iruñean hazia da. Orain gurean bizi da ingeles klaseak emanez. Horretaz gain, euskara ikasten ari da, eta tarte baterako herriko Pulunpe banatzailea dugu.

## Sustraietara bueltatu zinen...

Bai, batez ere haurrarentatik itzuli nintzen. Basaburuko eskolara eramaten dut egunero, ez baitago bien arteko autobus zerbitzurik. Herri eta hiriaren arteko aldaketa handia sumatu dut, azken finean Txantrean familia eta lagunak dituzu eta hemen zerotik hasi behar. Naturaz gozatzea eta paseatzea gustuko dut, eta hori da niretzat garrantzitsuenak; nire semea oso gustura dago hemen. Nire kabuz egotea gustuko dut baina norbaitekin egotea nahi baldin badut, bada, mugitzen naiz eta listo!

## Eta orain Pulunpe banatzen...

Birginia (Iragi) zen banatzailea. Ama izan da abenduan, eta eskatu zidan hila-bete batzuetarako ea banatzen ahal nuen nik aldizkaria. Banaketan amatasun baja hartu du, kar-kar... Baietz esan eta, behin-behineko egoera bada ere, nik banatzen dut. Abenduan hasi eta ti-ta egiten da, egia esan behin bakarrik egin dut... Herritik bueltatxo bat ematen duzun bitartean egiten duzu banaketa.

## Ingeles klaseak ere ematen dituzu etxean.

Urte pila bat eman dut Zizurren akademia batean klaseak ematen, eta aurten erabaki nuen etxean hastea lanean aldaketak zirela-eta. Etxeko taldeaz gain, Basaburuko eskolan eskolaz kanpoko jarduera saio batzuk ematen ditut. Eskolan bi talde ditut eta etxean beste talde pare bat. Poliki-poliki doaz, baina kontent nago denbora dudalako nire gauzak egiteko.

## Zein metodologia erabiltzen duzu zure klaseetan?

Haur bakoitzaren arabera da. Orokorrean, DBH mailako ikasleekin institutu-  
tuan ikasten dutena osatzeko laguntza saioak egiten ditugu eta txikiagokoekin saio arinagoak egiten ditugu, jolasak eta ahozkoitasuna medio. Saiatzen naiz klaseak dinamikoak eta dibertigarriak egiten. Hori bai, beti pixka bat lotuta zaude eskolan markatzen duten ildo jarraitu behar delako. Hori bai, hezkuntza sistemarekin kritikoa naiz ikusten dudalako haurrak ez daudela, orokorrean, motibatuak.

## Euskara ikasten ari zara, suposatzen dut, sistema motibatzaileago batean, ezta?

AEKko ikaslea naiz Larraintzarren Lekunberriko Bearekin. Beno tira, oraintxe etorri behar dira hona bazkaltzera (elkarriketa Apeztegi berrin egin genuen). Oso gustura nago, batez ere ahozko praktika asko egiten ditugulako. Motibatuak gaude ikasi nahi dugulako. Aurten hasi naiz euskararekin, baina aurretik Hizkuntz eskolan eta Uhartan ere egon nintzen. Hizkuntzarekin buelta asko eman ondoren, orain semearekin euskaraz hitz egiteko nahiari esker itzuli naiz ikastera.







## Lantzek Petti jaso zuen

Ahots inbidiagarria dauka abeslari beratarrak. Urteak daramatza estilo ezberdinak jorratuz, eta azkenik berea aurkitu du rock, soul eta blues doinuen artean. Gitarra eskuetan, besterik gabe eskaini zuen kontzertua Lantzen, abenduaren 11n.

Lanzko ostatuan izan zen emanaldia. Jen-de ugari izan zen entzuten, eta guk berarekin hitz batzuk egiteko baliatu genuen aukera, berari buruz gehiago jakiteko.

Ahotsa da Pettiren altxorrik preziatuena. Ederki uztartzen da berak lantzen duen musika estiloarekin, eta nola ez, hitzek garrantzia handia dute. Horretarako berak egindakoez gain, literatura eta musika uztartuz hainbat idazlerekin batera egingakoak ere aurkituko ditugu bere erreperitorioan..

### IDAZLEEN HITZAK ABESTIETAN

Harkaitz Cano, Juan Luis Zabala, Eneko Barberena edo Beñardo Goietxe idazleak izan dira Pettiren abestien hitzak jarri dituztenetako batzuk. Lehenengoarekin, Harkaitz Canorekin, ibilbide luzeagoa du, eta etorkizunera begira ere elkarlanerako asmoa dute.

“Erramurik gabeko gauak” edo “Suer-tearen Bluesa” dira idazle honen hitzak dituzten abestietako batzuk, “Astirtitan” azken diskoarenak. Beste abesti batzuen bertsioak ere egin izan ditu, “Xalbadorren heriotzean” ospetsuaren abesti ederra esaterako.

Musika berria entzun nahi izanez gero, beraz, baduzue non aukeratu, Lanzko Pettiren kontzertuan egon ez bazineten.

### BERA HERRIA ETA MUSIKA

Musika talde ugari izan ditu Berak azken hamarkadetan, kalitate onekoak gainera: rocka, heavya, musika esperimental... Hori izateko sekretua jakin nahian jo dugu Pettirengana, eta hauxe bere erantzuna: “Ez dakigu zergatik den egia erran. Udalaren laguntza daukagu, lokalak uzten baitizkigute; Berako musika eskola ere hagitz ona da, eta musikari aunitz ateratzen da bertatik, kalitate onekoak. Irakasleak ere hagitz onak dira. Bestalde gaztetxean eta ostatueta musika ohitura handia egon da, bertako taldeak sustatzekoa. Hau guztia nahasita litzateke erantzuna.”

## 90 urteko amari nola azaldu krisi ekonomikoa

Aritz Gorostiaga latasarrak Goya sarietarako aurreaukeratua izan den dokumental batean lan egin du



Ezkarozko Eufrazia grabatzen, Joseba kamera eskutan.

Ama batek galdegiten duenean erantzun behar zaio, zer motatako erantzuna den, bakoitzak jakinen du. Lanik gabe eta begi-bistan inolako proiekturik ez izatean, dokumentalaren protagonista herriko etxera itzultzen da. Bertan, guraso zaharrak haien inguruan pikutara joaten ari den gizartearen egoera ez dute ulertzen, beste gehienek bezalaxe. Amak egiten dituen galdera horien erantzunak dira dokumentalaren haria.

### Nola definituko zenuke zuen lana?

Dokumental hau road movie “autobiografiko” bat da krisiari buruz hitz egiten duena. Ez dakienarentzat, “road movie”ak film mota batzuk dira non protagonistak errepideetan mugitzen dira. Krisi ekonomikoari buruz hitz egiten du, eta horren gizarte eraginari buruz ere bai. Testuinguru zail hau lausotzeko nolabait, umorea eta ironia erabiltzen dira.

### Nola sortu zen proiektua?

Nire lana duela lau urte hasi zen. Arturo Cisneros filmaren protagonistari ideia bat bururatu eta nigan etorri zen, eta honako proposamena egin zidan: Zergatik ez dugu egiten krisiari buruzko dokumen-

tal bat nire amaren galdera honi erantzuteko? Eta galdera zen “baina Arturo non dago dirua?”, dokumentalaren izenburua.

### Zein izan da zure lana ?


Nik egin dudana lana muntaia eta grabaketa izan da. Lana nahiko luzea izan da. Filme osoaren 33 bertsio desberdin egin ditut, pentsa! Holako proiektuek aldaketa asko dituzte azken bertsioa izan eta bukatu arte.

### Azalduko, gainetik bada ere, lanaren prozesua?

Lehendabizi “teaser” batzuk egin genituen dirua lortzeko. “Teaser” deitutakoak filmaren iragarki edo laburpentxoak dira. Jaialdi batzuetara aurkeztu ginen, eta baita irabazi ere. Momentu horretan TVE sartu zen proiektuan eta horrek bultzada handia eman zion proiektuari, batez ere alor ekonomikoan. Azken bertsioa bukatuta genuenean, Iruñean estreinatu eta hilabete bat egon da Golemetan. Goya sarietara aurreaukeratua izan da 6 atal desberdinetan. Baina, azkenean, ez da nominatua izan. Oso zaila zen, pelikula asko baitzeuden. Orain ari gara bukatzen bertsio laburrago bat TVErentzako. Eta filma jaialdietan “mugitzea” nahi dugu.



DOKUMENTALAREN ABESTIAREN BIDEO-KLIPA IKUSI NAHI? SARTU AMETZA.EUS WEBGUNEAN



SAREAN IKUSI DOKUMENTALA: WWW.FILMIN.ES WEBGUNEAN



## 2015eko **AZAROA** Gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

### JAIOTZAK:

#### BASABURUA

##### Orokietza

Imanol eta Xabier Goldaratzena Oitz, Jose Maria eta Nerearen semeak, 2015eko azaroaren 27an, *Ankamotza* etxean.

#### LANTZ

Iosu Ihaben Ziganda, Jesus Maria eta Mirianen semea, 2015eko azaroaren 14an, *Erdikoetxean*.

#### ULTZAMA

##### Auza

Andoni Maritorena Iragi, Ignazio eta Virginiaren semea, 2015eko azaroaren 23an jaioa.

##### Iraizotz

Luken Crespo Etxandi, Titi eta Isabelen semea, 2015eko azaroaren 30ean jaioa.

### ZORIONAK JAIOPERRIEN GURASOEI!

### HERIOTZAK

#### ANUE

##### Leazkue

Santiago Rekalde Agirre, Rekaldeko nagusia, 2015eko azaroaren 28an hil zen.

#### IMOTZ

##### Latasa

Martin Urra Jaunarena, 2015eko azaroaren 17an hil zen Gerendiango *Xahartegian*. Harrokeria eta abarrots handirik gabe bizi izan zena, ixil-ixilik beti lanean, hala-hala joan zaigu. Horregatik beharbada, bere senideek eta l-tsasoko *Errandonekoek* gogoan izanen dute beti Martin.

#### ULTZAMA

##### Auza

Blas Tornaria Bengoetxea, Urtiñeneko nagusia, 2015eko azaroaren 7an hil zen.

### GURE OROIMENEAN IZANEN ZARETE



Imanol, Xabier eta gurasoak



Mirian bere bi semeekin



Andoni eta familia



Luken eta familia



Martin



Santiago

## Etxeko katua

Aurreko Pulunpe batean katuei buruz hitz eta kontua da hilabete honetan ez gurela behar, pinu-beldar edo prozesionariei Andoni Andoñoren argazkiak handik eta berak bazuen argazki eder hau.

**D**uela hilabete gutxi batzuk katu bat ekarri zuten etxera. Urtetan mota guztietako "animaliekin" bizitzen egon banaiz ere, guztietan pisukide bitxiak da gure "Señorito". Egun osoa sofán lotan egon daiteke eta gau partean erotu eta bere buruan bakarrik dauden saguak ehizatzen saiatu, edota sofako zulo batera sartu eta hortik mugitzen dena harrapatzen saiatu...

Halako jokaera mota ohikoa da katuengan, baina ez da hori liluratzeko nauena. Harritzen nauena bien artean sortzen den harreman parekidea da. Argi geratu behar da zu katuarekin bizi zarela eta ez bera zurekin. Berak, hein handi batean,



egin genuen, bai, badakigu. mitxinoei buruz hitz egin buruz baizik. Ale honetan hemendik sartu ditugu eta

markatzen du bien arteko erlazioa. Hein batean diot, katuek sena oraindik ere oso garatua baitute eta askotan ez dira "aske" nahi dutena egiteko, senak alde batera edo bestera eramaten baitie. Halere, erraz haserretzen den pertsona baldin bazara

edota oso urduria, uste dut oso positiboa izan daitekeela zuretzat katu batekin bizitzea. Erakutsiko dizu pazientzia garatzen, besteen erritmo eta nahiak errespetatzen eta tira, telebistara begira egotea baino hobea, halako tigretxo batek momentu oro egiten dituen deabrukeriei begiratzea oso dibertigarria izan daiteke!

## Prozesionaria



**E**txeko amodioak alde batera utzita, neguan eskualdeko edozein pinutan ikus daitekeen prozesionariari buruz hitz egingo dugu, labur bada ere. Zientziak "Taumetopeidoen edo notodontidoen familiako" tximeleta mota baten beldar iletsua dela esaten du, guretzat errepide eta bideetan ilara luzeak egiten dituzten animalia arraro horiek dira. Prozesio pagano horiek egiteaz gain, guztiok ezagutzen dugu haien toxikotasuna, txikitari batek baino gehiagok esperientzia txarratik ongi baino gehiago ikasiko zuen!

Gure eskualdeko pinu askotan ikusten ahal da tximeleta har hauen habiez beteta daudela. Aipatu beharra dago arriskutsua dela zuhaitz hauen azpian bazkaltzen egotea, adibidez. Udaberria arte zuhaitzetan egongo dira eta gero haien prozesio bitxiak egingo dituzte. Horren ondoren lurperatu eta tximeleta bihurtuta aterako dira gero. Bizpahi-

ru egun besterik ez ditu ematen bizirik, jan egin gabe, bikotea bilatzen. Gutxi irauten dutenez, hemen duzue tximeletaren argazkia.



Tira, gainera bada ere, gaur bi kontu oso desberdinei buruz hitz egin dugu, katuekin bizitzeak izan ditzakeen efektu psikologiko positiboak buruz eta prozesionariari buruz. Esaerak dioen bezala, a ze pare...



# ORIONAK ZUEI!



Juanito



Mirentxu



AURITZ



AIMAR ETA ARKAITZ



KIA

**¿CREES QUE LLEGARÁN SOLOS A RECICLARSE? PONLE CABEZA ZURE USTEZ, IRITSIKO AL DIRA BEREN KASA BIRZIKLATZERA? EGIZU GOGOETA RECICLA TUS RAE\* BIRZIKLATU ZURE TEEHak\***

Entrega tu viejo aparato en la tienda donde compres el nuevo, o usa los servicios de tu mancomunidad: el servicio de recogida de voluminosos (Tel. 948 302 898) o los puntos limpios móviles y fijos. Consulta en tu mancomunidad

Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendara, edo erabil itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak: tamaina handikoen bilketa zerbitzua (Tel. 948 302 898) edo garbigune mugikorrek eta finkoak. Galdetu zure mankomunitatean

\*Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos. / \*Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak.

948 423 242 / [www.mcp.es](http://www.mcp.es)

**energía berriztagarriak**  
**tedesna**  
energías renovables

- Instalaciones Solares Térmicas
- Instalaciones Solares Fotovoltaicas
- Calderas y Estufas de Biomasa
- Ahorro y Eficiencia Energética
- Eguzki-instalazio termikoak
- Eguzki-instalazio fotoboltoiak
- Biomasa galdarak, berogailuak eta lurreko suak
- Aurrezki eta eraginkortasun energetikoa

685 907 634 - 685 907 635 | [tedesna@tedesna.com](mailto:tedesna@tedesna.com) | [www.tedesna.com](http://www.tedesna.com)

**DABID ELIZONDO PINTURAK**  
**DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA**  
TEL: 678 623866  
[argapin@hotmail.com](mailto:argapin@hotmail.com)

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea  
fatxadak zaharberitzea  
iragazgaizleak (impermeabilizaciones)  
kalitatea eta garbitasuna  
aurrekontuak konpromisorik gabe

**ZIAURRITZ**

Sateliteari esker, internetera konektatu zaitez

**22**  
Mega arte

**Senatel**  
Telecomunicaciones  
848 410 500  
Sta. Vicenta Maria 14 31012  
IRUÑEA  
[info@senatel.es](mailto:info@senatel.es)



Internet dond  
no llega nadie



# URTE BERRI ON

